## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-4873

AGINDUA, 2000ko irailaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Aseguru-Bitartekari Tituludunen Gipuzkoako Elkargoko estatutuak onartzeko.

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuak –abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartu zuen– 10.22 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du tituludun lanbide eta profesionalen elkargo eta kontseiluen alorrean, betiere Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan agindutakoa alde batera utzi gabe.

Eskumen hori erabiliz azaroaren 21eko 18/1997 Legea eman zen, tituludun lanbide eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa, eta lege horren 33. artikuluak dioenez, elkargoetako estatutuak eta estatutuetan egindako aldaketak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jakinarazi behar zaizkio. Sailak, legezkoak direla egiztatuta, behin betiko onartuko ditu agindu-bidez, eta agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du estatutuekin batera. Estatutuak eta aldaketa, bestalde, Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatu beharko dira.

Aseguru-Bitartekari Tituludunen Gipuzkoako Elkargoko estatutuak legeetara egokituta daudela egiaztatuta, tituludun lanbide eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.*– Onarpena.

Aseguru-Bitartekari Tituludunen Gipuzkoako Elkargoko Aseguru-Bitartekari Tituludunen Gipuzkoako Elkargoko estatutuak onartzea.

*2. artikulua.*– Argitalpena.

Aseguru-Bitartekari Tituludunen Gipuzkoako Elkargoko estatutuak argitaratzea, agindu honen eranskinean.

*3. artikulua.*– Inskripzioa.

Aseguru-Bitartekari Tituludunen Gipuzkoako Elkargoko estatutuak Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatzea, erregistroa formalki eratzen denean.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Eraginkortasuna.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko irailaren 4a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-4873

ORDEN DE 4 de septiembre de 2000, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se aprueban los Estatutos del Colegio de Mediadores de Seguros Titulados de Gipuzkoa.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, en el artículo 10.22, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio en lo dispuesto en los Artículos. 36 y 139 de la Constitución Española.

La Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, dictada en virtud de la citada competencia, establece en su artículo 33 que los estatutos colegiales, así como su reforma, serán comunicados al Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco para su aprobación definitiva, previa verificación de su legalidad, mediante Orden que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco conjuntamente con los estatutos e inscrita en el Registro de Profesiones Tituladas.

Verificada la adecuación a la legalidad de los Estatutos del Colegio de Mediadores de Seguros Titulados de Gipuzkoa, en virtud de las competencias que me otorga la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales

RESUELVO:

*Artículo 1.*– Aprobación.

Aprobar los Estatutos del Colegio de Mediadores de Seguros Titulados de Gipuzkoa.

*Artículo 2.*– Publicación.

Ordenar la publicación de los Estatutos del Colegio de Mediadores de Seguros Titulados de Gipuzkoa como Anexo a la presente Orden.

*Artículo 3.*– Inscripción.

Ordenar la inscripción de los Estatutos del Colegio de Mediadores de Seguros Titulados de Gipuzkoa en el Registro de Profesiones Tituladas en el momento en que éste sea constituido formalmente.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA.– Efectividad.

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de septiembre de 2000.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

ASEGURU-BITARTEKARI TITULUDUNEN GIPUZKOAKO ELKARGOKO ESTATUTUAK

LEHENENGO TITULUA
ARAU OROKORRAK

LEHENENGO KAPITULUA
IZAERA. HELBURUAK. EREMUA. IZENA. HELBIDEA

*1. artikulua.–* Aseguru-Bitartekari Tituludunen Gipuzkoako Elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat da, izaera juridiko propioa eta jarduteko erabateko gaitasuna du, aseguru-bitartekari tituludunen lanbidea eta elkargokideen lanbideko interesak defendatu eta ordezkatzen ditu, gizarteak dituen interes eta beharrekin bat etorriz.

Legeetan eta estatutu orokor eta berezietan aitortzen zaizkion ahalmenak ere izango ditu.

Aseguru-Bitartekari Tituludunen Euskal Elkargoetako Kontseiluko eta Aseguru-Bitartekari Tituludunen Elkargoetako Kontseilu Nagusiko lana koordinatzen du.

*2. artikulua.–* Aseguru-Bitartekari Tituludunen Gipuzkoako Elkargoaren jardute-eremua Gipuzkoa da, eta lurralde horretan du eskumena.

*3. artikulua.–* Izena hau du: COLEGIO DE MEDIADORES DE SEGUROS TITULADOS DE GUIPUZCOA – ASEGURU-BITARTEKARI TITULUDUNEN GIPUZKOAKO ELKARGOA.

*4. artikulua.–* Donostia-San Sebastiánen du egoitza, Salbador Bertsolaria kalea, 10, etxabea, 20018. Hala ere, Gobernu-batzordeak aldatu egin dezake helbidea, udalerri horren barruan betiere, Batzar Orokorrerako deia egin beharrik gabe.

BIGARREN KAPITULUA
ELKARGOETAN SARTZEA

*5. artikulua.–* Aseguru-agente edo aseguru-artekari izanda sar daiteke Elkargoan, edo bestela, Aseguru-Agentziako sozietateko edo Asegurue-Artekaritza bateko ordezkari izanda, edo ez-jarduneko bitartekari izanda.

*6. artikulua.–* Aseguru-zorroari eusten dion jarduneko bitartekari izanda ere egin daiteke elkargokide, baldin eta aseguru-agente edo aseguru-artekari gisa lanbidean arituta, eurak bideratutako aseguru-polizen zorroari eustera mugatzen badute euren lana.

*7. artikulua.–* Jarduneko elkargokideak hauek dira: legez gaiturik daudela, aseguru pribatuetan artekari-lanak egiten dituzten aseguru-artekari eta agente tituludunak. Norbere kabuz nahiz aseguru-artekaritza nahiz agentzia baten izenean egiten dute lan.

ESTATUTO DEL COLEGIO DE MEDIADORES DE SEGUROS TITULADOS DE GUIPUZCOA

TÍTULO PRIMERO
NORMAS GENERALES

CAPÍTULO PRIMERO
NATURALEZA. FINES. ÁMBITO. DENOMINACIÓN. DOMICILIO

*Artículo 1.–* El Colegio de Mediadores de Seguros Titulado de Guipúzcoa es una corporación de derecho público con personalidad jurídica propia y en plena capacidad de obrar y tiene por finalidad la representación y defensa de la profesión de Mediador de Seguros Titulado y de los intereses profesionales de los colegiados en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad.

Ostenta además las facultades que aparecen reconocidas en las leyes y estatutos generales y particulares.

Coordina su actuación en el Consejo de Colegios Vascos de Mediadores de Seguros Titulados y en el Consejo General de los Colegios de Mediadores de Seguros Titulados.

*Artículo 2.–* El Colegio de Mediadores de Seguros Titulados de Guipúzcoa tiene su ámbito de actuación y ejerce su competencia en el territorio histórico de Guipúzcoa.

*Artículo 3.–* La denominación es COLEGIO DE MEDIADORES DE SEGUROS TITULADOS DE GUIPUZCOA - GIPUZKOAKO TITULUDUN ASEGURUETARAKO RTEKARIEN ELKARGOA.

*Artículo 4.–* Su domicilio radica en Donostia-San Sebastián, Bertsolari Salvador n.º 10 bajo, 20018 si bien, la Junta de Gobierno, podrá trasladar dentro del término municipal de Donostia-San Sebastián dicho domicilio, sin necesidad de convocar la Asamblea General.

CAPÍTULO SEGUNDO
INCORPORACIÓN A LOS COLEGIOS

*Artículo 5.–* La incorporación al Colegio podrá hacerse como Agente de Seguros o Corredor de Seguros, o bien, como representantes de una sociedad de Agencia de Seguros, o de una Correduría de Seguros, o como no ejercientes.

*Artículo 6.–* De igual manera, cabe la colegiación como ejerciente en conservación de cartera, para aquellos que habiendo ejercido la profesión, bien como Agentes de Seguros o como Corredores de Seguros, limitan su actividad a la conservación de la cartera de las pólizas de seguros intermediadas por ellos.

*Artículo 7.–* Son colegiados ejercientes los Agentes y Corredores de Seguros Titulados que gozando de la capacidad legal dedican su actividad a la mediación en seguros privados, por cuenta propia o como representantes que actúan en nombre y por cuenta de una agencia o correduría de seguros.

Ez-jardunekoak, berriz, hauek dira: elkargokide izateko betekizunak konplituta dituztela, aseguru-bitartekaritzako lanbidean ari ez direnak.

Esandakoa gorabehera, titulatuak izan gabe elkargokide direnak halaxe jarraituko dute, indarrean den araubide iragankorrarekin bat.

*8. artikulua.*– Elkargokide izateko betekizunak hauek dira:

a) Merkataritzan jarduteko legezko gaitasuna edukitzea.

b) Ezgaitasunik ez edukitzea.

c) Lanbidean aritzeko ezgaiturik ez egotea.

d) Espainiar nazionalitatea edukitzea edo Europako Batasuneko kide den estaturen batekoa, edo atzerriko herrialde bateko nazionala, baldin eta legeek eskatutako moduan egiaztatzen badu egitatezko eta zuzenbidezko elkarrekikotasun-printzipioa jatorrizko herrialdean lanbidean aritzeko.

e) Aseguru-bitartekariaren titulua egiaztatzea, edo Europako Batasuneko herrialdeetatik datozen aseguru-bitartekarientzat aurreikusitako homologazio-baldintzak egiaztatzea, eta legezko xedapenek ezartzen dituzten betekizunak konplitzea.

f) Elkargoan sartzeko hasierako kuota ordaintzea.

g) Lanbide-egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan duela egiaztatzea.

2.– Agenteek hau ere egiaztatu beharko dute:

Espainian operatzeko baimendutako aseguru-erakunde batekin merkataritza-kontratu bakarra izatea indarrean; izan ere, horrek emango dio erakundeko agente izaera.

3.– Artekariek, bestalde, hauek egiaztatu beharko dituzte:

– Adierazpen formal batez, agentzia-kontraturik ez edukitzea erakunde aseguratzailearekin eta

– Norbere kontura lan egiten badute, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren erregistro berezian edo Aseguruen Zuzendaritza Nagusian inskribatuta daudela; bitartekaritza-sozietate baterako lan egiten badute, berriz, sozietate horretan inskribatuta daudela.

*9. artikulua.*– Ez-jarduneko elkargokidea izango da:

a) Agente titulua badu, edo agente eta artekari titulua, edo aseguru-bitartekari tituludunaren diploma, edo bihar-etzi balio osoz ematen den beste edozein titulu, baina lanbidean ari ez bada.

b) Elkargoan jarduneko kide izanda, aseguru-artekari edo agente gisa jarduera guztiak utzi baditu, edo lanbidean aritzeko bateraezintasunen bat badu.

Son colegiados no ejercientes quienes cumpliendo los requisitos necesarios para ser colegiados, no ejercen la actividad profesional de mediación de seguros.

Lo expuesto, se entiende sin perjuicio de la permanencia en el Colegio de quienes ya formaran parte del mismo aunque no fueren titulados, de acuerdo con el régimen transitorio establecido y vigente.

*Artículo 8.*– Son requisitos para obtener la colegiación los siguientes:

a) Tener capacidad legal para ejercer el comercio.

b) No estar incurso en incompatibilidad.

c) No estar inhabilitado para el ejercicio profesional.

d) Ostentar la nacionalidad española o de un estado miembro de la Unión Europea, o ser nacional de un país extranjero, acreditando en legal forma el principio de reciprocidad de hecho y de derecho, para el ejercicio profesional en el estado de origen.

e) Acreditar la posesión del Título de Mediador de Seguros, o las condiciones de homologación previstas para los Mediadores de Seguros procedentes de países miembros de la Unión Europea y cumplir los requisitos que las disposiciones legales determinen.

f) Satisfacer la cuota colegial de entrada.

g) Acreditar que tiene un domicilio profesional sito dentro del territorio histórico de Guipúzcoa.

2) Asimismo los Agentes acreditaran:

Tener contrato mercantil de agencia único en vigor con entidad aseguradora autorizada para operar en España, que les confiera la condición de agente de la misma.

3) Por su parte los corredores acreditarán :

– Mediante declaración formal, no tener suscrito contrato de agencia con entidad aseguradora y

– Su inscripción, si actúan por cuenta propia, en el Registro especial del órgano competente de la Comunidad Autónoma del País Vasco o en la Dirección General de Seguros y si actúan por cuenta de una sociedad de correduría, la inscripción de esta sociedad.

*Artículo 9.*– La situación de colegiado 'no ejerciente' se dará en los siguientes supuestos:

a) Cuando se posea el Título de Agente, o de Agente y Corredor o el Diploma de Mediador de Seguros Titulado, o cualquier otro título que en el futuro pueda válidamente otorgarse y que facilite para ejercer la profesión, y no se ejerza la actividad profesional.

b) Cuando estando colegiado como 'ejerciente', haya cesado en todas las actividades de mediación como Agente o Corredor de Seguros o haya incurrido en causa de incompatibilidad para el ejercicio de la profesión.

*10. artikulua.–* Elkargokide egiteko eskaera, onarpena eta ezespena.

a) Eskabidea, kasuaren arabera aurkeztu beharreko agiriekin batera, Elkargoan aurkeztu beharko da, Elkargoak onartutako ereduan.

b) Elkargoak hilabeteko epean hartuko du erabakia, eskabidea jasotzen den egunetik aurrera, edo agiri osagarriak aurkeztu diren edo akatsak zuzendu diren egunetik aurrera. Epe horretan erabakirik hartu ezean, eskabidea onartutzat joko da behin-behingoz.

c) Elkargoaren erabakia ezezkoa bada, jakinarazi egingo zaio interesatuari. Erabakiaz gain, ezesteko arrazoiak jakinaraziko zaizkio, bai eta erabaki horren aurka, hogei egun baliodunеko epean, Aseguru-Bitartekari Tituludunen Euskal Elkargoen Kontseiluari gora jotzeko errekurtsoa jartzeko aukera ere.

d) Errekurtso horren gaineko erabakia hiru hileko epean hartu beharko du Kontseiluak, errekurtsoa Kontseiluaren Erregistroan aurkezten den egunetik aurrera edo agirietan egindako akatsak zuzentzen diren egunetik aurrera. Epe hori pasatuta, organo eskudunak ez badio interesatuari berariazko ebazpenik jakinarazten, eskabidea ezetsi egin dela esan nahiko du; horrekin beraz, zabalik geratuko da administrazioarekiko auzietako bidea.

e) Kontseiluaren ezezko ebazpena, adierazia, behin betikoa izango da elkargoko administrazio bidean, eta, hemen ere, zabalik geratuko da administrazioarekiko auzietako bidea.

f) Elkargoak onartutako eskabideak helaraziko dizkio Aseguru-Bitartekari Tituludunen Euskal Elkargoen Kontseiluari eta Kontseilu Nagusiari, nork bere erroldak presta ditzan.

*11. artikulua.–* Elkargokide izaera galdu egingo da:

a) Heriotzaz.

b) Elkargokideak lanbidean aritzeari uzten dionean eta Elkargoan «ez-jarduneko kide» moduan jarraitu nahi ez duenean.

c) Lanbidean aritzeko ezgaitasuna dakarten Administrazioko isun edo epai judizial irmoak eta behin betikoak daudenean.

d) Erregelamenduaren arabera Elkargoak halako erabakia hartzen duenean.

e) Elkargoko kuotak ordaindu gabe uzten direnean, Elkargoak 13. artikuluan agindutako bete ondoren.

*12. artikulua.–* Zigor-espediente baten ondorioz baja ematen denean, Estatutuek eta Lanbide eta Elkargoko Deontologiako Erregelamenduek ezartzen dituzten errekurtsoak aurkeztu ahalko dira.

*13. artikulua.–* Bi kuota edo gehiago ordaindu gabe utziz gero, baja emango da. Elkargoak, behar den eran, ordaintzeke dituen kuotak ordaintzeko eskatuko dio elkargokideari. Hori eskatu zitzaionetik hogeita ha-

*Artículo 10.–* Solicitud, admisión y denegación de colegiación:

a) La solicitud, en el modelo colegialmente aprobado, junto con la documentación que en cada caso proceda, se presentará en el Colegio.

b) El Colegio dictará acuerdo dentro del mes siguiente a la fecha de presentación o de aquélla en que se haya completado la documentación o subsanado sus defectos. A falta de acuerdo en el indicado plazo, la solicitud se entenderá provisionalmente aprobada.

c) Si la decisión del Colegio fuera contraria a la colegiación, lo notificará al interesado, haciéndole saber los motivos en que se fundamente la denegación y que contra este acuerdo puede formular recurso de alzada ante el Consejo de Colegios Vascos de Mediadores de Seguros Titulados en el plazo de veinte días hábiles.

d) El acuerdo del Consejo sobre este recurso deberá producirse en el término de tres meses a contar de la fecha de entrada del recurso en el Registro del Consejo o desde que se haya completado o subsanado la documentación defectuosa. Transcurrido dicho plazo, si el Organo competente no hubiese notificado al interesado resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud, quedando expedita la vía para el recurso contencioso-administrativo.

e) La resolución denegatoria, expresa, del Consejo será definitiva en la vía administrativa colegial, quedando igualmente expedita la vía contencioso-administrativa.

f) El Colegio dará traslado al Consejo de Colegios Vascos de Mediadores de Seguros Titulados y al Consejo General, de las solicitudes admitidas para la confección de sus censos respectivos.

*Artículo 11.–* Se pierde la condición de colegiado por:

a) Fallecimiento.

b) Cuando el colegiado cese en el ejercicio profesional y no desee continuar incorporado al Colegio como «no ejerciente».

c) Sanción administrativa o Sentencia judicial firmes y definitivas que implique inhabilitación para el ejercicio de la profesión.

d) Acuerdo colegial adoptado reglamentariamente.

e) Impago de las cuotas colegiales, previo cumplimiento por el Colegio de lo dispuesto en el artículo 13.

*Artículo 12.–* En caso de baja, como consecuencia de expediente sancionador, procederán los recursos que establezcan los Estatutos y los Reglamentos de Deontología Profesional y Colegial.

*Artículo 13.–* La falta de pago de dos o más cuotas será causa de baja en el Colegio. El Colegio correspondiente requerirá en forma al colegiado para que abone las cuotas pendientes. Pasados treinta días desde la fe-

mar eguneko epean kuotak ordaindu gabe baditu elkargokideak, besterik gabe baja emango zaio Elkargoan; gainera, dagokiona ordain dezan eskatzeko behar diren egintza judizialak egingo zaizkio. Horren guztiorren berri emango zaio eta jakinaraziko zaio erabaki horren aurka idazki arrazoitu bat aurkez dezakeela Kontseilu Nagusian, hogeita hamar egun balioduneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo dagokion epean, baldin eta Autonomia Kontseilua bada eskuduna.

Elkargokide bat kuotak ez ordaintzeagatik kanporatu bada eta berriz itzuli nahi badu, elkargoak baja jakinarazi zion egunaren arteko kuota guztiak ordaindu beharko ditu. Gainera, ehuneko hamarreko urteko errekargua, interes arruntari dagokiona, ordaindu beharko du, bai eta sortutako gastuak ere —behar bezala egiaztatu beharko dira—. Bajaren gainean Elkargoak hartzen duen erabakiaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Aseguru-Bitartekari Tituludunen Euskal Elkargoen Kontseiluari, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera.

*14. artikulua.–* Elkargoek gertatu diren bajen eta aldaketen berri emango dute, eta Aseguru-Bitartekari Tituludunen Euskal Elkargoen Kontseiluari eta Kontseilu Nagusiari helaraziko dizkiete, jasota utz ditzaten, eta behar denean, elkargoaren komunikabideetan argitara ditzaten.

*15. artikulua.–* Baldin eta elkargora itzultzeko unean baldintzak betetzen badira, elkargokidearen izaera berreskuratu egingo da kasu hauetan:

a) Elkargoan sartzeko eskaera egiten denean, baldin eta baja elkargokideak berak eskatu bazuen.

b) Administrazioko agintariek edo agintari judizialek jarritako zigorrak indultatu edo barkatzen direnean.

c) Elkargokidearen izaera aldi baterako kendu zion zigorra betetzen duenean.

## HIRUGARREN KAPITULUA
## ELKARGOKIDEEN ESKUBIDE ETA EGITEKOAK

*16. artikulua.–* Elkargokideen eskubideak dira:

Elkargokideek eskubide hauek izango dituzte:

a) Elkargoko ekintzetan parte hartzeko eta elkargoko organoetako bileretara joateko, hitzaz eta botoaz.

b) Hauteskundeetako arauen arabera, elkargoetako gobernu-organoetan hautesle eta hautagai izateko.

c) Elkargoaren jardueren berri eman eta jasotzeko, bai funtsezko alderdiei buruz, bai alor jakin batean gehiago eragiten dieten gaiei buruz.

d) Elkargoan ezarritako zerbitzuak erabiltzeko.

cha del requerimiento sin haber abonado las cuotas y sin perjuicio de las acciones judiciales pertinentes para exigir su pago. se le dará de baja sin más trámites, notificándoselo y haciéndole saber que contra este acuerdo podrá elevar escrito razonado al Consejo General en el plazo de treinta días hábiles, a contar del siguiente a aquél en que haya recibido la notificación, o en el que en su caso proceda si fuera competente el Consejo Autonómico.

El colegiado que haya sido baja por falta de pago de las cuotas colegiales y pretenda su reingreso, abonará las cuotas devengadas hasta el momento de la notificación colegial de baja, con recargo del diez por ciento simple anual y, en su caso, los gastos ocasionados debidamente acreditados. En todo caso contra este acuerdo colegial de baja, cabe recurso de alzada ante el Consejo de Colegios Vascos de Mediadores de Seguros Titulados en el plazo de un mes a contar del siguiente a aquel en que haya recibido la notificación.

*Artículo 14.–* De todas las bajas y modificaciones, los Colegios harán la difusión oportuna y darán traslado al Consejo de Colegios Vasco de Mediadores de Seguros Titulados y al Consejo General, para su constancia y publicación, en su caso, en los medios de comunicación colegial.

*Artículo 15.–* Podrá recuperarse la condición de colegiado, siempre que en el momento de la reincorporación se cumplan las condiciones precisas para ello, en los siguientes casos:

a) Por solicitud de reincorporación cuando la baja se hubiera producido por decisión del colegiado.

b) Indulto o condonación de las sanciones impuestas por autoridades administrativas o judiciales.

c) Cumplimiento de la sanción que haya impuesto la privación temporal del carácter de colegiado.

## CAPÍTULO TERCERO
## DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LOS COLEGIADOS

*Articulo 16.–* Son derechos de los colegiados:

Los colegiados tendrán los siguientes derechos:

a) Participar en la vida colegial y asistir con voz y voto a las reuniones de los órganos respectivos.

b) Ser elector y elegible respecto de los órganos de gobierno de los colegios de conformidad con las normas electorales.

c) Informar y ser informado de la actuación colegial en sus aspectos esenciales y en las cuestiones que concreta y personalmente les afecten en ese ámbito.

d) Utilizar los servicios establecidos en el Colegio.

e) Elkargoaren aholkularitza jasotzeko lanbideko gaiei buruz.

f) Gobernu-organoen bitartekaritza eskatzeko elkargokideen artean desadostasunak sortzen direnean.

g) Batzordeak sor daitezen proposatzeko.

h) Batzordeetan eta gobernu-organoetan kasuan kasuko errekurtsoak jartzeko.

i) Elkargoko ikurra erabiltzeko.

*17. artikulua.–* Elkargokideen betebeharrak dira:

a) Estatutuan eta beste arau batzuetan ezarritakoa onartzea eta betetzea, bai eta Elkargoko gobernu-organoen erabakiak ere.

b) Elkargoa mantentzen laguntzea, ezartzen diren kuotak ordainduz eta ordainketak eginez.

c) Horretarako aukeratu ondoren, eman zaizkien karguak behar bezala betetzea, kontuen ikuskatzaile edo kontu-hartzailearenak barne.

d) Gobernu-organoetan, Elkargoan eta elkargokide guztiekin adiskidetasunak, harmoniak eta lanbideko etikak eskatzen duen bezala jokatzea.

e) Korporazioko ekintzetara joatea, ordezkaritzako karguak edukiz gero.

f) Gobernu-organoen funtzionamendua zuzenean edo zeharka ez oztopatzea, organo horiek erabat errespetatzea eta horiei laguntzea.

g) Intrusismo, bateraezintasun edo lanbidearen entzute ona galarazteko kasuren baten berri izanez gero, horren berri ematea Elkargoari; eta horrela, horien jakinaren gainean egonda, gobernu-organoek behar diren egintzak burutu edo neurriak har ditzaten.

h) Lanbideko gaiei buruz egiazko informazioa ematea, baldin eta pribatuak edo isilpekoak ez badira.

i) Aseguru-bitartekari tituludunaren lanbideari dagozkion arauak zehatz mehatz betetzea.

j) Helbidea aldatzean Elkargoari jakinaraztea, elkargoaren ondorioetarako.

## LAUGARREN KAPITULUA
## ELKARGOEN EGITEKOAK ETA ESKUMENAK

*18. artikulua.–* Elkargoaren egiteko propioak dira:

a) Lanbideko etika zaintzea eta herritarren eskubide eta interesak errespetatzen diren zaintzea.

b) Lanbideko jarduna antolatzea, dagokion eremuan eta legearen barruan.

e) Disfrutar del asesoramiento del Colegio, en las cuestiones profesionales.

f) Solicitar la mediación de los órganos de gobierno en los casos de discrepancia entre colegiados.

g) Proponer la creación de Comisiones.

h) Ejercer ante las Comisiones y Organos de Gobierno las reclamaciones y recursos que procedan.

i) Hacer uso del emblema colegial

*Articulo 17.–* Son obligaciones de los colegiados:

a) La aceptación y cumplimiento de lo establecido en el Estatuto y otras normas, y acuerdos de los órganos de gobierno del Colegio.

b) Contribuir al sostenimiento económico del Colegio satisfaciendo las cuotas y pagos que se establezcan.

c) Desempeñar los cargos para los que resulten elegidos con la debida diligencia, incluyendo las funciones de interventor o auditor de las cuentas.

d) Cumplir respecto de los órganos de gobierno, del Colegio y de todos los colegiados los deberes que impone el compañerismo, la armonía y la ética profesional.

e) Asistir a los actos corporativos, cuando se ostenten cargos representativos.

f) No entorpecer directa o indirectamente el funcionamiento de los órganos de gobierno, así como otorgar a tales órganos el mayor respeto y colaboración con dichos órganos.

g) Informar al Colegio sobre los casos de intrusismo, incompatibilidad, o de desprestigio profesional que pudieran conocer, para que los órganos de gobierno puedan ejercitar las acciones o medidas que resultan procedentes.

h) Facilitar información veraz y responsable sobre cuestiones profesionales que no tengan carácter privado o reservado.

i) Cumplir escrupulosamente las normas profesionales que corresponden a la profesión de Mediador de Seguros Titulado.

j) Comunicar al Colegio los cambios de domicilio a efectos colegiales.

## CAPÍTULO CUARTO
## FUNCIONES Y COMPETENCIAS DE LOS COLEGIOS

*Artículo 18.–* Funciones propias: Son funciones propias del Colegio:

a) Velar por la ética profesional y por el respeto a los derechos e intereses de los ciudadanos.

b) Ordenar, en su respectivo ámbito y dentro del marco legal establecido, el ejercicio de la profesión.

c) Lanbideko jarduna legezkoa eta egokia izan dadin zaintzea.

d) Elkargokideen egiteko eta betebeharrak konplitzen direla zaintzea.

e) Elkargokideen lanbide-interes orokorren onerako eta defentsarako diren egintzak burutzea, behar diren zerbitzuak ezarriz.

f) Kideei diziplina ezartzea, Estatutu hauen eta dagozkien araudien arabera.

g) Bere lurralde-eremuan, lanbideko interesak zaintzea agintarien aurrean, korporazioetan, erakundeetan, ordezkaritzetan edo entitateetan.

h) Lanbidea ordezkatzea eta defendatzea edozein motako organo jurisdikzionaletan, hala nola edozein alor eta gradutako epaitegi eta auzitegitan. Legitimazioa du elkargoko eta lanbideko interesei eragiten dien auzietan parte izateko.

i) Prozedura judizial edo administratiboetan txostenak egitea, hala eskatzen zaion guztietan.

j) Epaitegi eta Auzitegiei, horretarako deituz gero, gai judizialetan peritu izan daitezkeen elkargokideen zerrenda ematea legeek esaten duten moduan, edo horiek izendatzea, hala dagokionean.

k) Lanbideari ahalik eta irudirik onena ematea eta onura ekartzea, horretarako Elkargoak berak edo elkargoen artean prestatutako kanpaina edo ekintzen bidez, betiere, autonomia kontseiluaren edo, behar denean, Kontseilu Nagusiaren jarraibideen arabera.

l) Elkargoaren aurrekontuak onartzea, elkargokideen ekarpenak erregulatzea, eta elkargoan sartzeko kuotak, aldizkakoak eta elkargokideek ordaindu beharreko gainerakoak ezartzea.

ll) Lanbidea babestu eta defendatzea, dagozkion ekintzen bidez. Horretarako, Gobernu-batzordeak erabakia hartu beharko du aurrez, nahitaezko informe juridikoan oinarrituta.

m) Elkargokideentzat zerbitzu komunak jartzea eta, bereziki, etengabeko lanbide prestakuntza sustatzea, eta prestakuntza hori eraginkorra izan dadin sustatzea.

n) Elkargokideen artean edo elkargokideen eta hirugarren batzuen artean sortzen diren lanbideko arazoetan parte hartzea, bitartekaritzaz edo arbitrajez, alderdi guztiek hala eskatzen dutenean.

ñ) Elkargokideen lan profesionalak ikus-onestea, Elkargoko estatutuek edo indarrean den legediak hala ezartzen dutenean. Ikus-onesteaz, besteak beste, egiaztatuko da lanaren eta titulazioaren auditoretza eta lanaren edukia. Ikus-onesteak ez du ordainsaririk eta kon-

c) Velar por un legal y adecuado ejercicio profesional.

d) Velar por el cumplimiento de los deberes y obligaciones de los colegiados.

e) Ejercer cuantas acciones redunden en beneficio y defensa de los intereses profesionales generales de sus colegiados, estableciendo al efecto los servicios oportunos.

f) Ejercer la facultad disciplinaria sobre sus miembros, de conformidad con los presentes Estatutos y Reglamentos respectivos.

g) Cuidar de la presencia y representación de los intereses profesionales ante las Autoridades, Corporaciones, Organismos y representaciones o Entidades que procedan, en el ámbito de su demarcación.

h) Ostentar igualmente la representación plena y defensa de la profesión ante toda clase de órganos jurisdiccionales, como Juzgados y Tribunales de cualquier orden y grado, con legitimación para ser parte en cuantos litigios afecten a los intereses profesionales y colegiales.

i) Informar en los procedimientos judiciales o administrativos siempre que sea requerido para ello.

j) Facilitar a los Juzgados y Tribunales, conforme a las leyes, la relación de colegiados que pudieran ser requeridos para intervenir como peritos en los asuntos judiciales o designarlos por sí mismos, según proceda.

k) Procurar la mejor imagen de la profesión y su conveniencia mediante campañas o actuaciones al efecto, del propio Colegio o intercolegiales, de acuerdo con las directrices del Consejo Autonómico respectivo, y en su caso del Consejo General.

l) Aprobar sus presupuestos, regular las aportaciones de los colegiados, estableciendo las cuotas de incorporación, periódicas y las demás que hayan de abonar los colegiados.

ll) Proteger y defender la profesión, ejercitando las actuaciones procedentes, previo acuerdo de la Junta de Gobierno a la vista del preceptivo informe jurídico.

m) Prestar servicios comunes para los colegiados y, en especial, promover la formación profesional permanente y velar por la efectividad del deber a la misma.

n) Intervenir, en vía de mediación o arbitraje, en los conflictos profesionales que se susciten entre colegiados, o de éstos con terceros cuando así lo soliciten de común acuerdo las partes implicadas.

ñ) Visar los trabajos profesionales de los colegiados cuando así lo establezcan los estatutos del Colegio de que se trate o así lo disponga la legislación correspondiente. El visado acreditará en todo caso la auditoría del trabajo y la titulación, competencia y habilitación del

tratuko gainerako baldintzarik hartuko, alderdiek erabakitzekoak izango baitira gai horiek.

o) Administrazio Publikoarekin lankide izatea interes komunak lortzen. Elkargo profesionalek, bereziki,

– administrazio-organoetan parte hartuko dute, baldin eta organoen arau arautzaileetan hala ezarrita badago. Bestalde, arau horietan ezarritakoaren arabera parte hartuko dute.

– organo edo erakunde eskudunek eskatzen dizkieten txostenak egingo dituzte, bai eta euren kabuz erabakitzen dituztenak ere.

– estatistikak egingo dituzte, eskatzen zaizkienean.

p) Intrusismoa eta bidegabeko lehia ekiditeko neurriak hartzea, ordenamendu juridikoan aurreikusitako ekintzen bidez.

q) Epaimahai batean gai espezifikoei buruzko ezagupenak eskatzen badira, epaimahai horretako ordezkariak izendatzea, epaimahaiak hala eskatuz gero.

r) Lanbideko interesentzako onuragarriak diren gainerako egiteko guztiak, hain zuzen ere, elkargoak dituen helburuak lortzera bideratutakoak.

*19. artikulua.–* Eskuordetutako egiteko administratiboak.

1.– Elkargoek, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egiteko propioak izango dituzte, Eusko Jaurlaritzaren dekretu batez hala agintzen bada.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki administrazioko egitekoak egin ditzakete, halaber, administrazio horietako organo eskudunek hala agintzen badute, dela ebazpen bidez, dela erabaki edo hitzarmen baten bidez. Dena delako agindu hori dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da.

3.– Eskuordetza egiteko xedapen, hitzarmen edo erabakian jarritako muga eta baldintzak betez burutuko dira egiteko horiek.

*20. artikulua.–* Elkargoek ahalmen guztiak izango dituzte edozein motako ondasun erosteko, eta beren ondare eta baliabideak administratzeko eta erabiltzeko.

BOSGARREN KAPITULUA
ELKARGOKO GOBERNU-ORGANOAK

*21. artikulua.–* Aseguru-Bitartekari Tituludunen Elkargoko organoak hauek dira:

autor, así como el contenido formal del mismo. El visado no comprenderá los honorarios ni las demás condiciones contractuales, cuya determinación se deja al libre acuerdo de las partes.

o) Colaborar con la Administración Pública en el logro de intereses comunes. En particular, los colegios profesionales:

– participarán en los órganos administrativos cuando así esté previsto en las normas reguladoras de los mismos y en los términos en ellas establecidos.

– Emitirán los informes que les sean requeridos por los órganos o entes competentes y aquéllos otros que acuerden formular a su propia iniciativa.

– Elaborarán las estadísticas que les sean solicitadas.

p) Adoptar las medidas conducentes a evitar el intrusismo y la competencia desleal, mediante el ejercicio de las acciones previstas por el ordenamiento jurídico.

q) Designar representantes en cualquier tribunal en que se exijan conocimientos relativos a materias específicas, siempre que se le requiera para ello.

r) Todas las demás funciones que sean beneficiosas para los intereses profesionales y se encaminen al cumplimiento de los objetivos colegiales.

*Artículo 19.–* Funciones administrativas delegadas:

1.– Los Colegios profesionales podrán ejercer además funciones propias de la Administración Publica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuando así se disponga por Decreto del Gobierno Vasco.

2.– Asimismo, podrán ejercer funciones propias de la Administración Pública Foral y Local del País Vasco cuando así se disponga por los órganos competentes de las respectivas Administraciones, mediante resolución, acuerdo o convenio, que deberá publicarse en el Boletín oficial del territorio histórico que corresponda.

3.– El ejercicio de estas funciones se llevará a cabo con el alcance y en los términos previstos en la disposición, convenio o acuerdo de delegación.

*Artículo 20.–* Los Colegios gozarán de las más amplias facultades para la adquisición de toda clase de bienes, administración y disposición de su patrimonio y recursos.

CAPÍTULO QUINTO
DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO DE LOS COLEGIOS

*Artículo 21.–* Constituyen los Organos de Gobierno del Colegio de Mediadores de Seguros Titulados de Guipúzcoa:

a) Batzar Orokorra.

b) Gobernu-batzordea.

c) Elkargoko lehendakaria.

*22. artikulua.–* Elkargokideen Batzar Orokorra da Elkargoko goreneko organoa, eta eskubide osoko elkargokideez osatuta dago, jarduneko elkargokideez nahiz ez-jardunekoez.

Batzarra urtean behin bilduko da gutxienez, gobernu-batzordeak deituta, Elkargoko aurrekontuak eta kontuak onartzeko.

Gobernu-batzordea administrazio eta zuzendaritzako organoa da, organo plenarioak hartzen dituen erabakiak gauzatzen ditu eta diziplina-ahalmena erabiltzen du.

Gobernu-batzordea hiruhilean behin batuko da gutxienez.

Lehendakaria Elkargoaren ordezkari da, gobernu-organoaren erabakiak gauzatzen ditu eta legeek, erregelamenduek eta estatutuek ematen dizkioten egiteko eta ahalmenak erabiltzen ditu.

*23. artikulua.–* Batzar Orokorraren eskumenak dira:

a) Estatutuak onartzea eta aldatzea.

b) Elkargoaren norabidea eta plan orokorrak ezartzea.

c) Gobernu-batzordeak eman ostean, ekintzen urteko memoria aztertu eta onartzea.

d) Ohiko eta aparteko aurrekontuak eta kontuen edo inbentarioen likidazioak onartzea.

e) Ondasun higiezinak erosi, kargatu eta besterentzea.

f) 18. artikuluaren babesean ezar daitezkeen kuotak edo beste diru-iturri batzuk erabakitzea.

g) Behar denean, ordezkaritzak ezartzea, lurraldeeremua, funtzionamendu arauak eta eskumenak zehaztuz.

h) Elkargoa beste batekin bat-egiteko, zurgatzeko, banatzeko edo desegiteko erabakia hartzea.

i) Elkargoaren egoitza beste herri batera aldatzeko erabakia hartzea.

j) Lehendakaria, lehendakariordea, diruzain-kontularia, idazkaria eta bokalak aukeratzea elkargokideen artean.

k) Gobernu-batzordeak ematen dion beste edozein gai.

h) eta i) idatz-zatietako erabakiak hartzeko, horretarakotxe egindako aparteko batzarrera joandakoen bi herenen aldeko botoa beharko da, baztertu gabe, betiere, elkargoa desegiteko 100. artikuluan ezartzen dena.

a) La Asamblea General.

b) La Junta de Gobierno.

c) El Presidente del Colegio.

*Artículo 22.–* La Asamblea General de Colegiados es el órgano soberano del Colegio y está integrado por todos los Colegiados de pleno derecho, ejercientes y no ejercientes.

La Asamblea habrá de reunirse al menos una vez al año, a convocatoria de la Junta de Gobierno, para la aprobación del presupuesto y las cuentas del Colegio.

La Junta de Gobierno es el órgano de Dirección y Administración, ejecuta los acuerdos del órgano plenario y ejerce la potestad disciplinaria.

La Junta de Gobierno se reunirá al menos una vez al trimestre.

El Presidente ostenta la representación del Colegio, ejecuta los acuerdos del órgano de gobierno y ejerce cuantas facultades y funciones le confieren las leyes, reglamentos y estatutos.

*Artículo 23.–* Son competencia de la Asamblea General:

a) La aprobación y reforma de los Estatutos.

b) Establecer las líneas y planes generales de actuación del Colegio.

c) Conocer y aprobar la memoria anual de actividades que le someta la Junta de Gobierno.

d) Aprobar los presupuestos ordinarios y extraordinarios, las liquidaciones de cuentas o inventarios.

e) Adquirir, gravar y enajenar bienes inmuebles.

f) Acordar las cuotas que pudieran establecerse al amparo del artículo 18, u otras fuentes de ingresos.

g) Establecer, en su caso, las Delegaciones que estime convenientes, determinando su demarcación, normas de funcionamiento y competencias.

h) Acordar la fusión, absorción, segregación o disolución del Colegio.

i) Acordar el cambio de domicilio del Colegio a otra población.

j) Elegir, entre sus miembros, al Presidente, Vicepresidente, Tesorero-Contador, Secretario del Colegio y Vocales.

k) Cualquier otro asunto que pueda someterle la Junta de Gobierno.

Los acuerdos de los apartados h) e i) requieren el voto favorable de las dos terceras partes de los asistentes a la Asamblea convocada con carácter extraordinario especialmente a este objeto, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 100 para el caso de disolución.

Batzarrean agenteen eta artekarien interesak kontra agertzen diren gaiak azalduz gero, batzorde parekide bat izendatuko du kideen artean. Batzorde horrek ebatziko ditu gai horiek, eta, beharrezkoa denean, arbitraje-formula bat ere erabili ahalko du.

*24. artikulua.–* Gobernu-batzordeko kideak:

Lehendakaria.
Lehendakariordea.
Diruzain-kontularia.
Idazkaria, eta sei bokal, gehienez.

Aldizkako hauteskundeak egitekorakoan baino ezingo da aldatu bokalentzat jarritako gehienezko kopurua.

Bokal guztiek Elkargoan eratutako lan-batzordeen ardura izango dute.

Gobernu-batzordeko kideak libreki aukeratuko dira, bozketa orokor, aske, zuzen eta isilpeko batez.

*25. artikulua.–* Gobernu-batzordearen eskumenak hauek dira:

a) Ohiko batzar, aparteko eta berezietarako deia egitea eta gai zerrenda prestatzea.

b) Batzordearen estatutu bereziak onartu edo alda ditzala proposatzea batzordeari.

c) Batzarraren esku utzi beharreko urteko memoria eta bihar-etziko jarduketa-plana onartzea.

d) Batzordeak eratu, aldatu eta desegin daitezen proposatzea, bertako funtzionamendu-arauak onartzea eta horietako kideak izendatzea.

e) Batzar Orokorraren esku uztekoak diren aurrekontu, ohiko eta aparteko kuota, kontu, balantze eta inbentarioen txostenak egitea.

f) Batzordeen eta eratutako zerbitzuen jarduketa-planak, memoriak, kontuak eta aurrekontu bereziak berrikustea, eta behar denean, onartzea.

g) Lanbideko eta elkargoko interesak defendatzea eta elkargoaren ordezkaritza gorena izatea administrazio publikoetan, agintarien aurrean, edozein mota, gradu edo jurisdikzioko epaitegietan, erakundeetan edo partikularren aurrean. Dituen ahalmen guztiak edo batzuk eskuordetu egin ditzake.

h) Kasuan kasu jarritako zigorrak erabaki eta aplikatzea, Estatutuekin eta Lanbide eta Elkargoko Deontologiako Erregelamenduarekin bat etorriz.

i) 59., 60. eta 63. artikuluetan jasotako erabakiak edo egintzak eteteko erabakia hartzea, non eta ez den eman 25. eta 27. artikuluetan aurreikusitako eskuordetza.

j) Elkargoari dagozkion egitekoak, baldin eta Batzar Orokorrari modu adieraziz esleituta ez badaude. Dena den, Batzarrak adierazten duen norabidean burutu beharko ditu ekintzok.

Cuando en la Asamblea se planteen cuestiones en las que pueda haber colisión de intereses entre Agentes y Corredores, designará de entre sus miembros una Comisión paritaria, que resolverá, incluso determinando una fórmula de arbitraje, si fuera necesario.

*Artículo 24.–* La Junta de Gobierno se compone de:

Presidente.
Vicepresidente.
Tesorero-Contador.
Secretario y hasta seis vocales.

No podrá variarse el número de vocales dentro del máximo previsto sino cuando se produzcan las elecciones periódicas.

Cada uno de los vocales, tendrá a su cargo las comisiones de trabajo constituidas en el Colegio.

Las personas que integran la Junta de Gobierno habrán de ser elegidas de entre todos los colegiados mediante sufragio universal, libre, directo y secreto.

*Artículo 25.–* Son competencias de la Junta de Gobierno:

a) Convocar las Asambleas ordinarias, extraordinarias o especiales, fijando el orden del día.

b) Proponer a la Asamblea la aprobación o modificación de sus Estatutos particulares.

c) Aprobar previamente la Memoria Anual y los planes de actuación futura a someter a la Asamblea.

d) Acordar la constitución, modificación y disolución de las Comisiones, aprobando sus normas de funcionamiento y nombrando sus miembros.

e) Informar los presupuestos, cuotas ordinarias y extraordinarias, cuantas, balances e inventarios a someter a la Asamblea General.

f) Revisar y aprobar, en su caso, los presupuestos especiales, cuentas, Memorias y planes de actuación de las Comisiones y Servicios constituidos.

g) Defender los intereses profesionales y colegiales, ostentado en su ámbito la plena representación del Colegio ante las Administraciones Públicas, Autoridades, Tribunales de toda clase, grado o jurisdicción, Organismos o particulares, pudiendo delegar todas o parte de sus facultades.

h) Acordar y aplicar, de conformidad con estos Estatutos y el Reglamento de Deontología profesional y Colegial, las sanciones que procedan.

i) Acordar la suspensión de los actos o acuerdos contemplados en los artículos 59, 60 y 63, salvo que opere la delegación prevista en este artículo 25 y en el 27.

j) Ejercer cuantas funciones correspondan al Colegio, siempre que no estén expresamente reservadas a la Asamblea General, desarrollando en su caso, las líneas generales que ésta señale.

k) Batzorde Iraunkorrari egitekoak eskuordetzea, baldin eta eskuordetu ezinekoak direla modu adieraziz jasota ez badago.

l) Gobernu-batzordean agenteen interesak eta artekarien interesak bat ez datozen gaiak azaltzen badira, Gobernu-batzordeak batzorde parekide bat izendatuko du kideen artean. Batzorde horrek ebatziko ditu gai horiek, eta, beharrezkoa denean, arbitraje-formula bat ere erabili ahalko du.

m) Gobernu-organoa hiruhilean behin bilduko da gutxienez, eta betiere, lehendakariak deitzen duen guztietan edo batzordeko %20ak eskatzen duen guztietan.

*26. artikulua.–* Batzorde Iraunkorra.

Batzar orokorrak elkargokideen batzar iraunkor bat eratzea erabaki dezake, elkargoak dituen helburuak betetzeko eta elkargoaren ohiko jardunetan ahalmenak erabiltzeko.

Batzorde iraunkorreko kideak hauek izango dira gutxienez:

Lehendakaria.
Lehendakariordea.
Diruzain-kontularia.
Idazkaria.

*27. artikulua.–* Kontrako erabakirik hartzen ez bada, egiteko hauek batzorde iraunkorrari eskuordetutzat joko dira:

a) Lehendakariak proposatuta, gobernu-batzordearen osokorako deia egitea eta gai-zerrenda adieraztea.

b) Elkargoaren edozein motako ondasunak eta fondoak administratzea. Ahalmena izango du ondasun higiezinak erosi eta inorentzeko eta zerbitzuak kontratatzeko, betiere aurrekontuen mugen barruan.

c) Elkargoko administrazio-zerbitzuetako funtzionamendua garatu, gidatu eta kontrolatzea, eta kontularitza-araubidea eta barne-araubidea ezartzea.

d) Elkargoko administrariak izendatzea eta kaleratzea, eta horien lan-araubidea eta ordainketena finkatzea.

e) Elkargoko fondoak erabiltzea, aurrekontuekin, estatutu orokor hauekin edo estatutu bereziekin bat etorriz, eta diru-sarrerak eta gastuak kontrolatzea.

f) Elkargoaren ordezkari izatea, eta edozein motako erakunde, elkarte, egintza edo batzarretan elkargoa ordeztuko duten elkargokideak izendatzea, non eta Gobernu-Batzordeak eginkizun hori bere gain hartzen ez duen.

g) Zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa den aldetik, Elkargoari eta lanbideko interesei eragiten dizkieten egintzak erabaki eta erabiltzea, baldin eta interes ho-

k) Delegar en la Comisión Permanente, en su caso, aquellas funciones no expresamente indelegables.

l) Cuando en el seno de la Junta de Gobierno se planteen cuestiones en las que pueda existir colisión de intereses entre Agentes y Corredores, la Junta de Gobierno designará, de entre sus miembros, una Comisión Paritaria, que resolverá, incluso determinando una fórmula de arbitraje, si fuera necesario.

m) El órgano de gobierno se reunirá al menos una vez cada trimestre, y en todo caso a convocatoria del Presidente o del 20% de los componentes de dicha Junta.

*Artículo 26.–* De la Comisión Permanente.

Para el cumplimiento de sus fines y ejercicio de sus facultades en el desarrollo ordinario de la vida colegial, la Asamblea General de colegiados podrá acordar la constitución de una Comisión Permanente.

Tal Comisión Permanente se compondrá al menos por:

El Presidente.
El Vicepresidente.
El Tesorero-Contador.
El Secretario.

*Artículo 27.–* Se entenderán delegadas en la Comisión Permanente, en su caso, y salvo acuerdo contrario, las siguientes facultades:

a) Acordar, a propuesta del Presidente, la convocatoria de la Junta de Gobierno en pleno, señalando los puntos que constituyan el orden del día.

b) Administrar los bienes de toda clase y fondos del Colegio con facultad de adquisición y enajenación de los bienes muebles y contratación de servicios dentro de los límites presupuestarios .

c) Desarrollar, dirigir y controlar el funcionamiento de los servicios administrativos del Colegio, estableciendo el régimen contable y normas de régimen interior.

d) Nombrar y despedir al personal administrativo del Colegio, fijando su régimen de trabajo y remuneración.

e) Disponer, de acuerdo con los presupuestos y los presentes Estatutos Generales o los Estatutos particulares del Colegio, de los fondos del mismo, controlando cuanto se refiera a los ingresos y gastos.

f) Ostentar la representación en concreto del Colegio, y designar a los colegiados que deban representar al Colegio ante toda clase de organismos, asociaciones, actos o reuniones, salvo que asuma esta función, es su caso, la Junta de Gobierno.

g) Acordar y ejercitar cuantas acciones de toda índole afecten al Colegio, como persona jurídica titular de derechos privados; a los intereses profesionales cuya

rien defentsa Elkargoari badagokio; eta Elkargoaren edo lanbidearen aurkakoak diren interesei aurre egitea.

h) Aurkezten diren errekurtsoen gainean erabakia hartzea, estatutu orokor hauetan eta elkargoaren estatutu berezietan edo elkargoko erregelamenduetan ezarritakoarekin bat; eta 63. artikuluan jasotako egintzak edo erabakiak eteteko erabakia hartzea, betiere txosten juridiko bat jaso ondoren.

i) Oro har, Batzorde Iraunkorrak Gobernu-Batzordeak eskuordetzen dizkion eskumenak izango ditu, eta Batzar Orokorrak eta gobernu-batzordeak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Horrezaz gain, egindako ekintzen berri eman beharko dio Gobernu-Batzordeari.

Gobernu-Batzordeak batzordeei eskualdatutako eskumenak berriz ere bere gain hartu ahalko ditu edozein unetan.

*28. artikulua.–* Elkargoko lehendakariak ahalmen eta eskurantza hauek izango ditu:

a) Duen karguaren indarrez eta bazterrean utzi gabe Batzorde Iraunkorraren edo Gobernu-Batzordearen ordezkaritza kolektiboa, Elkargoa ordezkatzea edozein motako agintari, erakunde, epaitegi eta auzitegitan, entitatetan, korporaziotan eta partikularren aurrean. Prokuradore eta abokatuei ahalak egiletsi ahalko dizkie.

b) Elkargo eta bere zerbitzuen goi-zuzendaritza bere gain hartzea behar diren gai guztietan, Batzarreko eta Gobernu-Batzordeko arauekin bat etorriz.

c) Legezko xedapen, estatutuko arau eta elkargoko erregelamenduak eta gobernu-organoek hartzen dituzten erabakiak zehatz betetzen diren zaintzea. Errekurritutako egintza edo erabakiak eteteko erabakia hartuko du, 59.f) eta 60.2 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Dena den, Elkargoaren gobernu-batzordeak 63. artikuluaren arabera gerora hartuko duen ebazpenaren kaltetan gabe egingo da hori.

d) Deia egitea Batzorde Iraunkorrerako, Gobernubatzorderako eta Batzar Orokorrerako, eta azken bi kasuetako azpiko organoak jakinaren gainean jartzea.

e) Mahaiburu izatea Elkargoko gobernu-organoek eta bertako batzordeek egiten dituzten batzarretan, horietara joanez gero; batzarrak ireki eta itxiko ditu, eztabaidak bideratuko ditu, gaien eztabaiden amaiera adieraziko du, betiere ezartzen diren txandak bukatuta; eta bozkatu beharreko gaiak bozketara aterako ditu.

f) Elkargoko lehendakariak, bai Gobenu-Batzordean bai Batzorde Iraunkorrean, boto erabakitzailea edukiko du, kasuan kasuko batzarrera joandako kideen botoetan berdinketak gertatuz gero.

defensa esté atribuida al Colegio y oponerse a los que se interponga contra él o contra la profesión.

h) Decidir sobre los recursos que se interpongan de conformidad con lo establecido en los presentes Estatutos Generales, o en los Estatutos particulares del Colegio o Reglamentos colegiales, y acordar la suspensión de los actos o acuerdos contemplados en el artículo 63, todo ello previo informe jurídico.

i) En general, la Comisión Permanente desempeñará las competencias que la Junta de Gobierno le delegue y ejecutará los acuerdos adoptados por la Asamblea General y la Junta de Gobierno, debiendo dar cuenta a ésta de sus actuaciones.

La Junta de Gobierno podrá en cualquier momento reasumir las competencias delegadas en las comisiones.

*Artículo 28.–* El Presidente del Colegio tendrá las siguientes facultades y atribuciones:

a) Ostentar, en virtud de su cargo y sin perjuicio de la representación colectiva de la Junta de Gobierno o de la Comisión Permanente, la representación del Colegio, ante toda clase de Autoridades, Organismos, Juzgados y Tribunales, entidades, Corporaciones y particulares, pudiendo otorgar poderes a favor de Procuradores y Abogados.

b) Asumir la alta dirección del Colegio y servicios colegiales en cuantos asuntos lo requieran, de acuerdo con las normas de la Asamblea y Junta de Gobierno.

c) Velar por el exacto cumplimiento de las disposiciones legales, normas estatutarias y Reglamentos del Colegio, así como de los acuerdos adoptados por los Organos de Gobierno, acordando la suspensión de los actos o acuerdos recurridos conforme a lo previsto en los artículos 59. f), y 60.2, sin perjuicio de la ulterior resolución al respecto que acuerde la Junta de Gobierno del Colegio, conforme se indica en el artículo 63.

d) Convocar la Comisión Permanente, la Junta de Gobierno y la Asamblea General, con conocimiento del órgano inferior en los dos últimos supuestos.

e) Presidir las reuniones que celebren los órganos de gobierno del Colegio y Comisiones del mismo, si asiste a ellas, declarando abiertas y levantando las sesiones, encauzando las discusiones, declarando terminado el debate de los temas, después de consumidos los turnos que se establezca, y sometiendo a votación las cuestiones que lo requieran.

f) El Presidente del Colegio, tanto en la Junta de Gobierno como en la Comisión Permanente, en su caso, tendrá voto dirimente, si se produjera empate en las votaciones de los miembros asistentes a la respectiva reunión.

g) Oniritziaz izenpetzea edo baimentzea, kasuaren arabera, gobernu-organoek egiten dituzten bileren aktak, Elkargoak egiten dituen txosten eta egiaztagiriak, bai eta ematen diren zirkularrak edo arau orokorrak.

h) Elkargoko fondoen kontura egin behar diren ordainketak agintzea, eta kontu edo gordailuetako fondoak sartzeko edo ateratzeko baimena ematea; horretarako, diruzain-kontulariaren izenpea edo dagokionaren izenpea jarri beharko da lehendakariarenakin batera.

i) Lehendakariak lehendakariordeari eskuordetu ahalko dizkio egiteko zehatzak, eta haren esku utziko du agiri batzuk izenpetzea; holakoetan, jakinaren gainean jarri beharko du Batzorde Iraunkorra.

*29. artikulua.–* Lehendakariordearen egitekoak.

a) Lehendakaria ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo kargua utzik dagoenean hura ordezkatzea, ahalmen eta eskurantza berak edukiko dituela.

b) Lehendakariak eskuordetzen edo bere esku uzten dizkion egiteko guztiak.

*30. artikulua.–* Elkargoko idazkaria.

Elkargoko idazkariak gobernu-organoen egintza eta erabaki guztiei fede emango die, eta dituen eskumen batzuk funtzionarioren bati eslei diezazkioke; horretarako, dena den, Batzorde Iraunkorrak edo, bestela, Gobernu-Batzordeak baimena eman beharko du.

Egitekoak:

a) Gobernu-organoen bileretako akta egitea.

b) Elkargoko dokumentazioa zaintzea eta egiaztagiriak egitea, lehendakariaren oniritzia dutela.

c) Elkargokideen errolda zaintzea, eta espediente bakoitzean elkargokide guztien datuak jartzea.

d) Urteko memoria idaztea, elkargoko ekintzak adierazteko. Gero, Gobernu-Batzordearen iritzipean jarriko da memoria, eta Batzar Orokorrak onartuko du.

e) Gobernu-batzordeak eskuordetzen dizkion gainerako egiteko eta ahalmen zehatzak.

*31. artikulua.–* Diruzain-kontulariari hau dagokio:

a) Elkargoko baliabideak bildu eta zaintzeko kudeaketa.

b) Gastuen eta diru-sarreren urteko aurreikuspenak, balantzeak eta kontuak formalizatzea, eta Gobernu-Batzordearen esku utzi behar diren aurrekontu-proiektuak formulatzea. Proiektu horiek Batzarrak onartuko ditu gero.

c) Fondoen sarrera eta irteeren liburuak, inbentarioa eta elkargoko ondasunen egoera behar diren formalta-

g) Firmar o autorizar con su Visto Bueno, según proceda, las actas de cuantas reuniones celebren los Organos de Gobierno, las certificaciones o informes que expida el Colegio, así como las circulares o normas generales que se dicten.

h) Ordenar los pagos que hayan de realizarse con cargo a los fondos del Colegio y autorizar el ingreso o retirada de los fondos de las cuentas o depósitos, uniendo su firma a la del Tesorero-Contador o persona que proceda.

i) El Presidente podrá delegar en el Vicepresidente cometidos concretos, así como encomendarle la firma de determinados documentos, dando cuenta a la Comisión Permanente.

*Artículo 29.–* Funciones del Vicepresidente:

a) Sustituir al Presidente, en caso de ausencia, enfermedad o vacante, con las mismas facultades y atribuciones.

b) Llevar a cabo todas aquellas funciones colegiales que le encomiende o delegue el Presidente.

*Artículo 30.–* Del Secretario del Colegio.

El Secretario del Colegio tendrá el carácter de fedatario de todos los actos y acuerdos de los Organos de Gobierno, pudiendo delegar algunas de sus competencias en un determinado funcionario, previa aprobación de la Comisión Permanente, o, en su defecto, Junta de Gobierno.

Sus funciones serán:

a) Levantar acta de las reuniones de los Organos de Gobierno.

b) Custodiar la documentación del Colegio y expedir las certificaciones con el Visto Bueno del Presidente.

c) Cuidar del censo de colegiados consignando en los respectivos expedientes los datos precisos de cada uno de ellos.

d) Redactar la Memoria Anual, que refleje las actividades del Colegio para someterlo a la consideración de la Junta de Gobierno y aprobación de la Asamblea General.

e) Las demás funciones y facultades concretas que le delegue la Junta de Gobierno.

*Artículo 31.–* Corresponde al Tesorero-Contador:

a) La gestión de la recaudación y custodia de los recursos colegiales.

b) La formalización de las cuentas, balances y previsiones anuales de ingreso de gastos, formular los proyectos de presupuestos que hayan de someterse a la Junta de Gobierno para su posterior aprobación por la Asamblea.

c) Cuidar de que se lleven con las debidas formalidades y requisitos los libros de entrada y salida de fon-

sun guztiekin eta betekizunen arabera daudela zaintzea, eta behar diren justifikanteak gordetzen diren zaintzea.

d) Elkargoko gastuak eta sarrerak aurrekontuetara egokitzen diren zaintzea, eta gorabeherarik egonez gero, Gobernu-Batzordeari jakinaraztea.

e) Fondoak kontuetatik ateratzea —beharrezkoa izango da lehendakariaren edo eskuordetzen duenarekin batera izenpetzea— eta, Batzorde Iraunkorrak erabaki ondoren, gordailuak eratzea edo deuseztatzea.

*32. artikulua.–* Batzordeak.

Elkargoan agenteen eta artekarien batzordeak egongo dira, bereziki eragiten dieten gaiak kontutan hartu eta aztertzeko. Bitartekariena ere egingo da adar edo modalitate jakin batentzat, bai eta entitate edo talde aseguratzaile jakin batekin erlazionatutako agenteen batzordeak ere, agenteek talde aseguratzaileekin duten lankidetzari dagokionean.

Lan-batzordeak eratzea ere erabaki dezake Elkargoak, bereziki Merkatua Antolatzekoak eta Lanbide eta Elkargoko Deontologiakoak, bai eta egokitzat jotzen duen beste edozein ere.

Aurreko batzordeek kide anitzekoak izan beharko dute eta eskubide korporatibo guztiak eduki beharko dituzte. Batzorde horien egitura, funtzionamendua eta bertako kideen aukeraketa batzorde bakoitzak dituen funtzionamendu-arauetan ezarritakoaren arabera egingo da. Batzorde horiek, dena den, aurreikusita eduki beharko dute Autonomia Kontseiluetan eta, batez ere, Kontseilu Nagusian eratuta dauden edo eratzen diren batzordeekin koordinatuta egotea. Agenteen batzordeko lehendakaria eta artekarien batzordeko lehendakaria izaera bereko kideek hautatu beharko dituzte.

Agenteen Batzordea eta Artekarien Batzordea eratu eta garatzea Gobernu-batzordeak sustatuko du.

Interesatuta dauden elkargokideek proposatuta eratuko dira gainerako batzorde sektorialak edo erakunde aseguratzaileen agenteenak, eta horietako funtzionamendu-arauak. Dena den, aurreikusitako karguak betetzeko adinakoa izan beharko du sustatzaile kopuruak, eta Elkargoko gobernu-batzordeak onartu beharko du.

Batzorde horiek eta beren funtzionamendua Elkargoko eta Kontseiluetako gobernu-organoen eskumenen kaltetan gabe ezarriko da.

*33. artikulua.–* Ponentziak.

Ponentziak eratu ahalko dira, gomendagarria bada. Gobernu-Batzordeak erabakiko du horiek sortzea, batzordeon funtzionamendu-arauak eta eskumenak ezarriko ditu, betiere Autonomia Kontseiluak, dagokion ere-

dos, inventario y estado de los bienes colegiales, así como de que se conserven los justificantes necesarios.

d) Cuidar de que los gastos e ingresos colegiales se ajusten a los presupuestos aprobados, dando cuenta de las posibles incidencias a la Junta de Gobierno.

e) Retirar los fondos de las cuentas, firmando conjuntamente con el Presidente o con quien delegue, así como la constitución y cancelación de los depósitos por acuerdo de la Comisión Permanente.

*Artículo 32.–* Comisiones:

En el Colegio existirán las Comisiones de Agentes y de Corredores, para la mejor consideración y estudio de las cuestiones que específicamente les afecten. También podrán constituirse Comisiones de Mediadores para un determinado Ramo o Modalidad, así como Comisiones de Agentes relacionados con una determinada entidad o Grupo Asegurador, para cuanto haga referencia a la colaboración de aquéllos con éstos.

Asimismo, el Colegio podrá acordar la constitución de Comisiones de Trabajo, especialmente las de Ordenación del Mercado y Deontología Profesional y Colegial, así como cualesquiera otras que considere convenientes.

La estructura, funcionamiento y elección de los miembros de las anteriores Comisiones que en todo caso deberán ser colegiados en el pleno disfrute de sus derechos corporativos, se realizará según se determine en sus respectivas normas de funcionamiento, debiendo preverse, en todo caso, la coordinación de estas Comisiones con las que respectivamente estén constituidas, o se constituyan, en los Consejos Autonómicos y, en todo caso, en el Consejo General. Los Presidentes de la Comisión de Agentes y de la Comisión de Corredores deberán ser elegidos por miembros de su misma condición.

La constitución y desarrollo de la Comisión de Agentes y de la Comisión de Corredores se promoverá por la propia Junta de Gobierno.

La constitución de las restantes Comisiones Sectoriales, o de Agentes de Entidad o Grupo Asegurador, y la redacción de sus normas de funcionamiento, se hará a propuesta de los colegiados interesados. En todo caso, el número de promotores deberá ser suficiente para cubrir todos los cargos previstos, sometiéndose a la aprobación de la Junta de Gobierno del Colegio.

La existencia y funcionamiento de estas Comisiones se establecerá en todo caso sin perjuicio de las competencias de los Organos de Gobierno de los Colegios y Consejos.

*Artículo 33.–* Ponencias:

Podrán constituirse las Ponencias que resulten aconsejables, por acuerdo de la Junta de Gobierno, la que establecerá sus normas de funcionamiento y competencias, sin perjuicio de las que puedan acordarse, en su

muan, eta egonez gero, Kontseilu Nagusiak erabakitzen dutenaren kaltetan gabe. Ponentzia horietako lehendakariek eta kideek elkargokide izan beharko dute, eskubide korporatibo osoak dituztela, eta Gobernu-Batzordeak izendatuko ditu, dagokion gaian lanbidean duten esperientzia kontuan hartuta.

*34. artikulua.–* Ponentzietako lehendakariek Gobernu-Batzordearen eta Batzorde Iraunkorraren bileretan parte hartuko dute, baldin eta eurei dagozkien gaiak badira edo gai horiek aztertu eta ikustea euren esku utzi bada. Hitza eta botoa izango dute, gobernu-organo horietako kide legez hala dagokienean.

SEIGARREN KAPITULUA
ORDEZKARITZAK

*35. artikulua.–* Elkargoak bere menpeko ordezkaritzak ezarri ahalko ditu, baldin eta komenigarria bada zenbait herritan ordezkaritza bat jartzea; zehazki, elkargokide asko bizi diren eta demografia eta ekonomiaren aldetik garrantzitsuak diren herrietan jarriko dira.

Elkargoko Batzar Orokorrak, gobernu-batzordeak proposatuta, ordezkaritzen lurralde-eremua zehaztuko du, bai eta funtzionamendu-arauak eta eskumenak ere.

ZAZPIGARREN KAPITULUA
ELKARGOKO ARAUBIDE EKONOMIKOA
ETA ADMINISTRATIBOA

*36. artikulua.–* Elkargoaren baliabideak hauek dira:

a) Kuotak, edozein motakoak.

b) Elkargora sartzeko eskubideak.

c) Legeek aitortzen dizkioten eskubideak.

d) Argitalpen, inprimaki, harpidetza, zerbitzu eta elkargoak zilegi dituen ekintzetatik ateratako diru-sarrerak.

e) Elkargoko ondasun eta eskubideak utzi edo ustiatzetik ateratako zenbatekoak.

f) Errendimendu edo interesak, bankuko kontuetatik sortutakoak edo beste finantza-produktu batzuetatik ateratakoak.

g) Elkargoaren aldeko jaraunspenak, legatuak, dohaintzak, diru-laguntzak eta ekarpenak.

h) Legezko xedapenen arabera lortutako beste edozein baliabide.

*37. artikulua.–* Elkargoko baliabideak puntu hauek kontuan hartuta banatuko dira:

a) Elkargoaren beharrak eta zerbitzuak, Batzar Orokorrak erabakitzen duen moduan eta gastuen aurrekontuekin bat etorriz.

ámbito, por el Consejo Autonómico, si existe, o el Consejo General. El Presidente de estas ponencias y sus miembros, deberán ser colegiados en el pleno disfrute de sus derechos corporativos y serán designados por la Junta de Gobierno en atención a su experiencia profesional en la materia respectiva.

*Artículo 34.–* Los Presidentes de las Ponencias participarán en las reuniones de la Junta de Gobierno y de la Comisión Permanente, cuando se traten asuntos que les afecten o hayan sido sometidos a su consideración o estudio, con voz y voto si les corresponde como miembros de estos Organos de Gobierno.

CAPÍTULO SEXTO
DELEGACIONES

*Artículo 35.–* El Colegio podrá establecer Delegaciones dependientes de él, en aquellas poblaciones que, por su gran importancia demográfica, económica y número de colegiados residentes en ellas, lo hagan aconsejable.

La Asamblea General del Colegio, a propuesta de la Junta de Gobierno, determinará en estos casos la demarcación, así como las normas de funcionamiento y competencias de las Delegaciones.

CAPÍTULO SÉPTIMO
RÉGIMEN ECONÓMICO Y ADMINISTRATIVO DEL COLEGIO

*Artículo 36.–* Constituyen los recursos del Colegio:

a) Las cuotas de todo tipo.

b) Los derechos de incorporación al Colegio.

c) Los derechos que le sean legalmente reconocidos.

d) Los ingresos por publicaciones, impresos, suscripciones, prestación de servicios o cualquier otra actividad colegialmente lícita.

e) Los importes provenientes de la explotación o disposición de sus bienes o derechos.

f) Los intereses o rendimientos de sus cuentas bancarias y de los demás productos financieros.

g) Las herencias, legados, donaciones, subvenciones y aportaciones a su favor.

h) Cualesquiera otros recurso obtenidos de conformidad con las disposiciones legales.

*Artículo 37.–* Los recursos colegiales se distribuirán teniendo en cuenta:

a) Las necesidades y servicios del Colegio como establezca su Asamblea General y de conformidad con su presupuesto de gastos.

b) Aseguru-Bitartekari Tituludunen Euskal Kontseiluari, eta Kontseilu Nagusiari egin beharreko ekarpenak.

Jaraunspen, legatu, dohaintza, diru-laguntza eta ekarpenen kasuan, errespetatu egin beharko da kausatzailearen borondatea edo legez dagokion destinoa.

*38. artikulua.–* Elkargoak egiten dituen egintza edo kontratu guztietan jarduteko erabateko ahalmenaz administratu eta erabiliko du ondarea; muga bakarra legek ezartzen dutena izango da, eta elkargoak zer helburu eta egiteko dituen, horiek jartzen duten muga.

*39. artikulua.–* Ondasun higiezinaren titularitatea behar bezala jasota geratuko da Jabetza Erregistroan inskripzioa eginez. Inskripzioa egitea derrigor eskatuko du Elkargoko Batzorde Iraunkorrak, eratuta baldin badago, edo, bestela, Gobernu-Batzordeak.

Elkargoko ondasunen egoera, Erregistroan jasota dagoen moduan, urteko aurrekontuari erantsiko zaio eranskin legez.

*40. artikulua.–* Elkargoko fondoak elkargoaren izenean gordailatuko dira gordailu eta kreditu erakundeetan. Fondoak erabiltzeko beharrezkoa izango da lehendakariaren eta diruzain-kontulariaren izenpea gutxienez, edo bestela, horiek proposatuta, Batzorde Iraunkorrak edo Gobernu-Batzordeak baimentzen dituenen izenpea.

*41. artikulua.–* Elkargoaren araubide ekonomiko administratiboa aurrekontuen bidez garatuko da, urteko ekitaldika, eta horietan, aurreikusitako gastu eta baliabideak jasoko dira.

*42. artikulua.–* Ohiko aurrekontuan jasota ez dauden egintzak burutzeko, elkargoak aparteko aurrekontuak formalizatu ahalko ditu, eta egintza guztiz burutzeko behar diren arte iraungo dute. Gobernu-batzordeak Batzarraren esku utziko ditu aurrekontuak, onar ditzan.

Ekonomia ekitaldia nolakoa izan den ikusita, gobernu-batzordeak kapitulu edo kontu-sail batean aurreikusitako soberakinak transferitzea erabaki ahalko du, aurreikusi gabeko defizitak edo gastuak estaltzeko.

*43. artikulua.–* Kontuen likidazioak, aurrekontuak edo balantzeak aztertu behar diren batzarretan, horiek eta dagozkien justifikanteak aztertu ahal izango dituzte batzarreko kideek, eta horretarako, eskura izango dituzte Elkargoaren Idazkaritzan, batzarra egin baino hamar egun lehenago gutxienez.

*44. artikulua.–* Aurrekontu propioa duten organoak edo zerbitzuak egonez gero, elkargoak horiei egiten dizkien ekarpenak elkargoaren ohiko aurrekontuaren barruan kontsignatuko dira.

b) Las aportaciones económicas que deban hacerse al Consejo Vasco de Mediadores de Seguros Titulados, y en todo caso al Consejo General.

Deberá respetarse el destino que proceda de norma legal o voluntad del causante en los supuesto de herencia, legado, donación, subvenciones o aportaciones.

*Artículo 38.–* El Colegio administrará y dispondrá de su patrimonio con plena capacidad de obrar en todos sus actos o contratos, sin más limitaciones que las establecidas en las Leyes y las derivadas de los fines y funciones a que esté afecto.

*Artículo 39.–* La titularidad del patrimonio inmueble quedará debidamente reflejada en el Registro de la Propiedad mediante la correspondiente inscripción, que se instará obligatoriamente por la Comisión Permanente del Colegio, si está constituida o, en su defecto, por la Junta de Gobierno.

Un estado de los bienes colegiales, tal como se recoja en dicho Registro, se incorporará a cada presupuesto anual como anexo.

*Artículo 40.–* Los fondos del Colegio estarán depositados a su nombre en Entidades de Depósito y Crédito. Para su disposición serán necesarias, al menos, dos firmas conjuntas, del Presidente y Tesorero-Contador o de quienes a propuestas de los mismos sean autorizados por la Comisión Permanente o Junta de Gobierno, a este efecto.

*Artículo 41.–* El régimen económico-administrativo del Colegio se desarrollará mediante presupuestos, por ejercicios anuales en los que se consignarán todos los recursos y gastos estimados.

*Artículo 42.–* Para atender a la realización de una actuación no prevista en el presupuesto ordinario podrán formalizarse por el Colegio presupuestos extraordinarios, cuya duración será la que exija el total desarrollo de la actuación. Estos presupuestos serán sometidos para su aprobación, por la Junta de Gobierno, a la Asamblea.

A la vista del desarrollo del ejercicio económico, la Junta de Gobierno podrá acordar la transferencia de los excedentes que se prevean en un capítulo, o partida, para cubrir los resultados deficitarios de otros o gastos no previstos.

*Artículo 43.–* Cuando se convoque una Asamblea a la que se deban someter liquidaciones de cuentas, presupuestos y/o balances para su aprobación, estarán los mismos y sus justificantes a disposición de los asambleístas, para su examen, en la Secretaria del Colegio, al menos con diez días de antelación a la fecha prevista para su celebración.

*Artículo 44.–* Cuando existan órganos o servicios dotados de presupuesto propio, las aportaciones colegiales a los mismos se consignarán dentro del presupuesto ordinario del Colegio.

Aurrekontu berezi horiek Elkargoko Gobernu-Batzordeak onartu beharko ditu, organo haiek, instituzioek edo zerbitzuek ezartzen dituzten funtzionamendu-arauen onarpena gorabehera.

Elkargoko kontuak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean ikuskatuko dira. Gobernu-batzordekoak ez diren bi elkargokide hautatuko dira, eta kontuak onartzeko Batzarrean izendatuko dira. Horien egitekoa izendatzen diren uneko ekitaldiko kontuei dagokiena izango da, betiere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari bere lege arautzailean agindutakoaren arabera dagokion fiskalizatze-lanaren kaltetan gabe.

BIGARREN TITULUA
ELKARGOKO ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA
ETA GOBERNU-ORGANOEN ERABAKIAK

LEHENENGO KAPITULUA
DEIALDIAK ETA ERABAKIAK HARTZEA

*45. artikulua.–* Gobernu-organoen deialdiak honela egingo dira:

a) Batzar orokorra:

– Gobernu-Batzordeak eta bere izenean lehendakariak.

– Lehendakariak, gutxienez elkargokideen %20ak eskatuta edo jarduneko elkargokideen %10ak eskatuta, idatziz.

b) Gobernu-Batzordea:

– Lehendakariak, bere ekimenez.

– Lehendakariak, gobernu-organoa osatzen dutenen %20k eskatuta.

c) Batzorde Iraunkorra:

– Lehendakariak, bere ekimenez.

– Lehendakariak, batzordeko kideen erdiak eskatuta.

*46. artikulua.–* Deialdia Gobernu-Organoko kide batek eskatuta egiten bada, batzarrean tratatu beharreko gai-zerrendako puntuak azaldu eta arrazoitu beharko dira eskaeran.

*47. artikulua.–* Bizi diren herritik kanpo batzarren batera joateko deia egiten bazaie Gobernu-Batzordeko kideei edo Batzorde Iraunkorrekoei, joan-etorriak sortutako gastuak ordainduko zaizkie, Gobernu-batzordeak ezartzen dituen arauekin bat.

Ez dute eskubide hori izango elkargoko kuotak ordaindu gabe dituztenek.

Estos presupuestos especiales, con independencia de las aprobaciones que las normas de funcionamiento de aquellos órganos, instituciones o servicios establezcan, deberán ser aprobados por la Junta de Gobierno del Colegio.

Las cuentas del Colegio serán auditadas en cada ejercicio presupuestario, mediante la elección de dos colegiados que no pertenezcan a la Junta de Gobierno, y cuya designación se realiza en la Asamblea de aprobación de las cuentas, desarrollando su labor respecto de las cuentas del ejercicio que se inicia en el momento de su nombramiento, todo ello sin perjuicio de la función fiscalizadora que corresponde al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas de acuerdo con lo dispuesto por su ley reguladora.

TÍTULO SEGUNDO
DEL RÉGIMEN JURIDICO GENERAL DEL COLEGIO
Y DE LOS ACUERDOS DE SUS ORGANOS DE
GOBIERNO

CAPÍTULO PRIMERO
CONVOCATORIAS Y ADOPCIÓN DE ACUERDOS

***Artículo** 45.–* Las convocatorias de los Organos de Gobierno de los Colegios se realizarán:

a) Asamblea general:

– Por la Junta de Gobierno y en su nombre el Presidente.

– Por el Presidente, a petición escrita de al menos el 20% de los colegiados o el 10% de los ejercientes.

b) Junta de Gobierno:

– Por el Presidente a su propia iniciativa.

– Por el Presidente si lo solicita el 20% de los componentes del órgano de gobierno.

c) Comisión Permanente:

– Por el Presidente, por propia iniciativa.

– Por el Presidente a petición de la mitad al menos de sus componentes.

***Artículo** 46.–* Cuando la convocatoria se efectúe a petición de un Organo de Gobierno, dicha petición deberá, en todos los casos, indicar y fundamentar los puntos del Orden del Día a tratar en la reunión.

***Artículo** 47.–* Los miembros de la Junta de Gobierno o Comisión Permanente, convocados a reunión fuera del lugar de su residencia, serán compensados por los gastos que el desplazamiento les ocasione, de acuerdo con las normas establecidas por la Junta de Gobierno.

No tendrán este derecho quienes no se encuentren al corriente en el pago de sus cuotas colegiales.

Aitzitik, nahitaezko batzarrak ez badira eta aurrekontuetan kontsignaziorik ez badago, parte-hartzaileek ordaindu beharko dituzte euren gastuak.

*48. artikulua.*– Batzarra egin baino hamar egun natural lehenago egin beharko da deia; Gobernu-Batzorderako eta Batzorde Iraunkorrerako deia, aldiz, bost egun natural lehenago. Dena den, epe hori gutxienez berrogeita zortzi ordukoa izan daiteke, presazko arrazoiak egonez gero eta hori behar den bezala justifikatzen bada.

*49. artikulua.*– Presa dela-eta, ezarritako epea gorde gabe egiten diren batzarrak, telegrama bidez deitu ahal izango dira, edo beste bide azkarragoren batez. Kasu horietan, deitutako organoaren lehenengo erabakian zera ebatziko da: presa justifikatua dagoen edo ez.

*50. artikulua.*– Batzarrean tratatu beharreko gaizerrendako puntuak adierazi beharko dira deialdietan.

*51. artikulua.*– Kapitulu honetan adierazitako betekizunen arabera deitutako Batzarrak eta Gobernu-Batzordeak legez eratzeko, kideen erdiak eta bat gehiago egon beharko dira lehenengo deialdian; bigarrena ordu erdi geroago egingo da eta ez da gutxieneko kopururik eskatuko. Batzorde Iraunkorrak kideen erdiak beharko ditu beti. Dena den, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria egotea, edo bestela, horien ordezkoak.

*52. artikulua.*– Eztabaidatzen den edozein gai onartzeko, beharrezkoa izango da boto eskubidea duten kide partaideen erdia eta bat gehiago alde egotea, non eta ez den ehuneko jakin bat ezarri gai batzuetarako.

Ohiko nahiz aparteko kuotak ordainduta ez dituzten elkargokideek ezingo dute boturik eman.

Lehendakariak finkatuko du botua emateko era eta hurrenkera, eta berak ebatziko du nola egingo den: eskua altxatuz, izenak jarrita edo isilpean; dena den, gai batek pertsonengan eragina badu, isilpekoak izango dira beti.

Batzarrean daudenen laurden batek hala eskatzen badu, bozketak izendunak edo isilpekoak izan daitezke, betiere azken horien gainean aurretik esandakoa betez.

*53. artikulua.*– Elkargoko Batzar Orokorretan, Gobernu-Batzordekoetan edo Batzorde Iraunkorrekoetan, kide guztiek organo bereko ordezko bat izan dezakete. Horretarako, batzar bakoitzerako eskuordetza berezi bat egingo da idatziz. Ordezko batek ezingo du eskuordetza bat baino gehiago eduki.

*54. artikulua.*– Gobernu-organoetako batzar guztietara joan beharko du idazkariak edo bere egitekoak burutzen dituenak, berak egingo baitu akta. Akta or-

Cuando no se trate de reuniones preceptivas y no hubiere consignación presupuestaria al efecto, los asistentes sufragarán sus propios gastos.

*Artículo 48.*– La Asamblea debe convocarse con una antelación mínima de diez días naturales, anteriores a la fecha prevista para su celebración y la Junta de Gobierno y la Comisión Permanente, con una antelación mínima de cinco días naturales, salvo razones de urgencia justificadas, en las que este plazo podrá quedar reducido a un mínimo de cuarenta y ocho horas.

*Artículo 49.*– Las reuniones que, por razones de urgencia se celebren sin sujeción a los plazos establecidos, podrán ser convocadas por telegrama o medio que se considere más rápido. En estos casos, el primer acuerdo del Organo convocado deberá recaer sobre si se considera justificada la urgencia.

*Artículo 50.*– En las convocatorias deberán constar los puntos del Orden del Día a tratar en la reunión.

*Artículo 51.*– Las Asambleas y Juntas de Gobierno convocadas con los requisitos antes señalados en el presente capítulo, se considerarán válidamente constituidas cuando concurran, en la primera convocatoria, la mitad más uno de sus miembros y en segunda convocatoria, señalada media hora más tarde como mínimo, con cualquiera que sea el número de miembros asistentes. La Comisión Permanente, necesitará siempre la mitad de sus miembros. En todo caso, será preceptiva la asistencia del Presidente y del Secretario o de quienes deban sustituirles.

*Artículo 52.*– La aprobación de cualquier asunto sometido a debate exigirá el voto favorable de la mitad más uno de los miembros asistentes con derecho a voto, salvo para los casos en que esté fijado un porcentaje distinto.

No podrán ejercer su derecho a voto los colegiados que no estén al corriente en el pago de sus cuotas ordinarias o extraordinarias.

Las votaciones se realizarán de la forma y por el orden que la Presidencia fije, decidiendo ésta si han de ser a mano alzada, nominales o secretas, salvo que afecten a personas, en cuyo caso serán siempre secretas.

A petición al menos de la cuarta parte de los asistentes, las votaciones podrán ser nominales o secretas, con la salvedad anterior en cuanto a éstas últimas.

*Artículo 53.*– En las Asambleas Generales del Colegio, de su Junta de Gobierno o Comisión Permanente, cualquier miembro podrá hacerse representar por otro del mismo Organo, mediante delegación especial escrita para cada reunión, sin que se pueda ostentar más de una delegación.

*Artículo 54.*– A todas las reuniones de Organos de Gobierno asistirá el Secretario o quien haga sus funciones, que levantará la correspondiente Acta, que podrá

gano berak onartu ahalko du edo, bestela, eskuordetza baten bidez, hogeita hamar eguneko epean, batzar bakoitzean propio izendatutako kontu-hartzaileek.

BIGARREN KAPITULUA
ELKARGOKO EKINTZAK ETA ERABAKIAK

*55. artikulua.–* Elkargoko gobernu-organo guztien ekintzak eta erabakiak Ordenamendu Juridiko Orokorrera eta estatutu hauetara egokitu beharko dira. Balio osokoak izateko, dagokion eskumenaren barruan hartu beharko dira eta ezarritako prozedura-arauetara egokituta egon beharko dira.

*56. artikulua.–* Elkargoak balioz hartutako erabakiak lotesleak izango dira elkargokideentzat.

Hori guztiori titulu honetan ezarritako errekurtsoen eta legez jar daitezkeen errekurtsoen kaltetan gabe.

*57. artikulua.–* Gobernu-organoek, dagokien eskumenen eremuan, balioz hartzen dituzten erabakiak berehala bete beharrekoak izango dira, etenaldia dakartenak izan ezik.

*58. artikulua.–* Elkargoari dagokionez, bereiztu egiten dira alde batetik, Elkargoko gobernu-organoen ekintzak edo erabakiak, eta bestetik, elkargoko kudeaketa-organoen ekintzak.

*59. artikulua.–* Esandako gobernu-organoen ekintzen edo erabakiei dagokienez, erabat deusezak izango dira:

a) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunen funtsezko edukia urratzen dutenak, edo legez ezarritako arauen kontrakoak direnak.

b) Beharrezko eskumenik izan gabe hartutakoak, dela gaia edo lurraldeagatik, dela agintea desbideratzeagatik.

c) Ezinezko helburua dutenak.

d) Arau-hauspen penala eragiten dutenak edo zigor arloan tipifikatuta dagoen arau-hauspen batean oinarrituta ematen direnak.

e) Legez ezarritako prozedura erabili gabe hartutakoak edo Elkargoko organoen borondatea gauzatzeko funtsezko erregelak biltzen dituzten arauak erabili gabe hartutakoak, bai eta egintzarako deialdian jarritako tokitik at hartutakoak ere.

f) Lege maila duen xedapen baten berariaz ezarritako edozein.

Aurreko puntuan azaldutako ekintzak erabat deuseztatzeko adierazpena edozein unetan erabaki ahalko du Elkargoko Gobernu-Organoak, dela ofizioz dela edozein elkargokidek eskatuta. Ekintza hori deuseztatzeko erabakia lehendakariak hartuko du, ofizioz nahiz edozein elkargokidek eskatuta, betiere bidezkotzat jotzen ba-

ser aprobada por el propio Organo o por delegación, en el plazo de treinta días por los Interventores nombrados en cada reunión con este objeto.

CAPÍTULO SEGUNDO
ACTOS Y ACUERDOS DEL COLEGIO.

*Artículo 55.–* Los actos y acuerdos de todos los Organos de Gobierno del Colegio habrán de ajustarse al Ordenamiento Jurídico General, y a los presentes Estatutos. Para su plena validez, deberán ser adoptados dentro de la competencia respectiva y ajustados a las normas de procedimiento que estuvieren establecidas.

*Artículo 56.–* Los acuerdos válidamente adoptados por el Colegio obligarán a sus colegiados.

Todo ello sin perjuicio de los recursos establecidos en este Título y que legalmente procedan.

*Artículo 57.–* Los acuerdos válidamente adoptados por los Organos de Gobierno dentro de su respectiva competencia, serán inmediatamente ejecutivos, salvo en los casos de suspensión.

*Artículo 58.–* A efectos colegiales, se distingue entre actos o acuerdos de los Organos de Gobierno del Colegio, y actos de los órganos de gestión del mismo.

*Artículo 59.–* Respecto de los actos o acuerdos de los Organos de Gobierno antedichos, se consideran radicalmente nulos los siguientes:

a) Los que lesionen el contenido esencial de los derechos y libertades susceptibles de amparo constitucional, o en contra de normas legalmente establecidas.

b) Los adoptados por órgano manifiestamente incompetente por razón de la materia o del territorio, incluso por desviación de poder.

c) Los que tengan un contenido de imposible cumplimiento.

d) Los que sean constitutivos de infracción penal o se dicten en base a una infracción tipificada penalmente.

e) Los adoptados prescindiendo total y absolutamente del procedimiento legalmente establecido o de las normas que contienen las reglas esenciales para la formación de la voluntad de los órganos colegiales, así como los adoptados fuera del lugar previsto en la convocatoria del acto.

f) Cualquier otro que se establezca expresamente en una disposición de rango legal.

La declaración de nulidad radical de los actos contemplados en el punto anterior, podrá acordarse en cualquier momento por la Junta de Gobierno del Colegio, de oficio o a instancia de cualquier colegiado. La suspensión de estos actos, también de oficio o a petición de cualquier colegiado, podrá acordarse, si se estima

du, eta aurkeztu ere ekintzen erabateko deuseztapena adierazten denetik hamabost eguneko epean. Gero, dena den, aipatu organoek etenaldia sendetsiko dute eta deuseztapen-adierazpena emango dute, egoki irizten badiote, eta behar diren ekintza judizialak egingo dira.

*60. artikulua.–* 1. Elkargoko gobernu-organoen ekintza edo erabakiak deuseztatzekoak izango dira baldin eta akats hauetakoren bat badute:

a) Normalean aurreikusitako denbora-tartea gorde gabe egitea deialdia (interesatuak deialdia estatutuetan jarritako epean jaso dezan jartzen baita denbora-tarte hori) edota ezordutan egitea. Holakorik gertatuz gero, deia egin zaionak ekintza edo erabakia inpugnatzea izango du, deitutako batzarrean egon ez bada.

b) Hartutako erabakiak deialdiko gai-zerrendan ez dagoen ekintza edo erabaki bati buruzkoak izatea, baldin eta inpugnatu duena gai hori aztertzeaaren kontra agertu bazen batzarrean edo batzarrean egon ez bazen.

c) Aurrekari zehaztugabeetan, eskasetan edo okerretan oinarrituta hartutakoak.

d) Ordenamendu juridikoko beste edozein arauhauspen dakartenak, agintearen erabilera okerra barne.

2. Ekintza edo erabaki horiek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikulutik 117. artikuluetan agindutakora egokitu beharko dira, estatutu hauetan zehazki arauturik gabekoetan.

*61. artikulua.–* Elkargoko kudeaketa-organoen ekintzei dagokienez, erabat deusezak joko dira gobernu-organoen erabakietan oinarritu gabe hartutakoak, edo kudeaketa-organoari dagozkion egitekoetatik kanpo hartutakoak edo dagozkion eskumenetatik kanpo hartutakoak. Kudeaketa-organoen ekintzak hauek ere deuseztekoak izango dira: interesatuari behar den eran jakinarazi gabekoak, baldin eta ustez jakinarazpena egin zaionak ez badu ekintzaren berri izan beste bideren batetik.

*62. artikulua.–* Elkargoko kudeaketa-organoen ekintzen erabateko deuseztapena edozein unetan adieraziko du Elkargoko lehendakariak edo lehendakariordeak. Interesatuek kudeaketa-organoen egintza deuseztagarriak inpugnatu ahalko dituzte, hil biko epean, ekintzaren berri izan zuen egunetik aurrera edo aplikatu nahi izan zitzaion egunetik aurrera.

*63. artikulua.–* Erabat deusez jotako ekintzak edo erabakiak nahiz deuseztagarriak direnak eten daitezela sustatu ahalko dute elkargokideek Elkargoko lehenda-

procedente en el plazo de quince días por el Presidente del Colegio, a contar desde la fecha en que se ponga de manifiesto la nulidad radical de los actos, sin perjuicio de la ulterior declaración de nulidad y ratificación de la suspensión por los órganos citados, si lo consideran procedente, y de las acciones judiciales que procedan.

*Artículo 60.–* 1.– Son anulables los actos o acuerdos de los Organos de Gobierno del Colegio que incurran en los siguientes defectos:

a) Convocatoria no realizada con la antelación normalmente previsible, para que el convocado la reciba respetando el plazo estatutariamente establecido, o citando en horas que deban considerarse intempestivas. En tal caso, el convocado podrá impugnar el acto o acuerdo si no hubiera estado presente en la reunión convocada.

b) Haber sido adoptados sin que el asunto a que se refiera el acto o acuerdo estuviera en el Orden del Día de la convocatoria, siempre que el impugnante se hubiera opuesto a su examen en la reunión respectiva, o no hubiere estado presente en la misma.

c) Los adoptados sobre la base de antecedentes imprecisos, o insuficientes o erróneos.

d) Los actos que incurran en cualquier otra infracción del Ordenamiento Jurídico, incluso la desviación de poder.

2.– La impugnación de tales actos o acuerdos habrá de ajustarse a lo dispuesto en los Arts. 114 a 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo común, en todo lo no regulado específicamente en los presentes Estatutos.

*Artículo 61.–* En cuanto a los actos de los órganos de gestión del Colegio se considerarán radicalmente nulos los adoptados sin basarse en un acuerdo de los Organos de Gobierno, o al margen de las funciones atribuidas al órgano de gestión, o excediéndose en su competencia. Y serán anulables los actos del órgano de gestión no notificados al interesado en forma, si el presunto notificado no tuvo conocimiento del acto por ningún otro conducto.

*Artículo 62.–* La nulidad radical de los actos de los órganos de gestión del Colegio se podrá declarar en cualquier momento, por el presidente del Colegio o Vicepresidente que le sustituya. Los actos anulables de los órganos de gestión se podrán impugnar, por el interesado en el plazo de dos meses, desde el momento en que tuvo conocimiento del acto o se pretendió serle aplicado.

*Artículo 63.–* Los colegiados podrán promover la suspensión de los actos o acuerdos que se consideren radicalmente nulos o anulables en la medida en que les

kariaren aurrean eta Gobernu-Batzordean, baldin eta ekintzok eraginik ekartzen badie; bestela, auzi-bideetara jo ahalko dute, baldin eta eskabidea egin zutenetik hilabete igaro bada eta erantzunik jaso ez badute.

Edozein kasutan ere, elkargokideek inpugnatu nahi duten erabakiaren edo erabakien egiaztagiria eskatu ahalko diote organoko idazkariari.

*64. artikulua.–* 1. Ekintza baten deuseztapenak edo deuseztagarritasunak ez du ekarriko prozeduran ematen diren gainerakoena, harengandik independenteak badira.

2. Ekintza baten deuseztapen edo deuseztagarritasun partzialak ez du ekarriko ekintzaren gainerako zatiena, baldin eta harengandik independenteak badira, non eta akatsa duen zatia oso garrantzitsua ez den eta akats hori gabe ekintza ez litzatekeen emango.

*65. artikulua.–* Hala ere, ekintza deusezak edo deuseztagarriak beste ekintza bat osatzen duten elementuak badituzte, azken ekintza horren ondorioak izango dituzte.

*66. artikulua.–* Deuseztapena adierazten edo ekintzak deuseztatzen dituen organoak zenbait ekintza eta izapide gordetzea aginduko du: arau-hauspena egin gabe berdin jarraituko luketenak, alegia.

*67. artikulua.–* 1. Elkargoak ekintza deuseztagarriak baliozkotu ahal izango ditu, dituzten akatsak zuzenduz.

2.– Baliozkotze-ekintzak duen egunetik aurrera izango ditu ondorioak, non eta ez den modu adieraziz atzera-indarra adierazten; betiere, interesatuek onartu beharko dute.

3.– Akatsa baimen baten gabeziagatik egin bada, organo eskudunak baimena emanez baliozkotu ahal izango da ekintza.

HIRUGARREN KAPITULUA
ZENTSURA-MOZIOA

*68. artikulua.–* Edozein karguren ekintzaren aurka zentsura-mozioak egin ahalko dira Elkargoan, baldin eta Batzarreko kideen laurdenak gutxienez eskatzen badu.

*69. artikulua.–* Mozioa idatziz egin beharko da eta Elkargoko Erregistroan aurkeztuko. Hauek zehaztu beharko dira:

1.– Zentsura-mozioa zein karguren kontrakoa den.

2.– Zentsuratzekoak direla uste diren ekintzak eta arrazoiak, eta, egoki izanez gero, komenigarriak litzatekeen ekintzak edo aukerak adieraziko dira.

afecten ante el Presidente y la Junta de Gobierno del Colegio, o bien judicialmente, si no tuvieren constancia de haber sido atendida su petición en el plazo de un mes a partir de la fecha en que la formularan.

En todo caso, los colegiados podrán pedir al Secretario del órgano, certificación del acuerdo o acuerdos que se pretendan o impugnar, según consten en la correspondiente Acta.

*Artículo 64.–* 1.– La nulidad o anulabilidad de un acto no implicará la de los sucesivos en el procedimiento, que sean independientes del primero.

2.– La nulidad o anulabilidad en parte del acto, no implicará la de las partes del mismo independientes de aquélla, salvo que la parte viciada sea de tal importancia que sin ella el acto no hubiera sido dictado.

*Artículo 65.–* Los actos nulos o anulables que, sin embargo, contengan los elementos constitutivos de otro distinto producirán los efectos de éste.

*Artículo 66.–* El órgano que declare la nulidad o anule las actuaciones dispondrá siempre la conservación de aquellos actos y trámites cuyo contenido se hubiera mantenido igual de no haberse cometido la infracción.

*Artículo 67.–* 1.– El Colegio podrá convalidar los actos anulables, subsanando los vicios de que adolezcan.

2.– El acto de convalidación producirá efecto desde su fecha, salvo que se indique expresamente su retroactividad, siempre que sea aceptada por los interesados.

3.– Si el vicio consistiese en la falta de alguna autorización, podrá ser convalidado el acto mediante el otorgamiento de la misma por el órgano competente.

CAPÍTULO TERCERO
MOCIÓN DE CENSURA

*Artículo 68.–* Se podrán formular en el Colegio mociones de censura sobra la actuación de cualquier cargo representativo concreto, siempre que la misma se promueva, como mínimo, por un cuarto de los miembros de la Asamblea.

*Artículo 69.–* La moción deberá formularse por escrito que se presentará en el Registro del Colegio, indicando concretamente:

1.– Cargo representativo respecto al que se dirige la moción de censura.

2.– Hechos que, en su caso, se consideren dignos de censura, y razones para ello, e incluso señalando, si resultara pertinente, acciones o soluciones alternativas que hubieran resultado, o resultaren, aconsejables.

*70. artikulua.*– Elkargoko gobernu-organoek balio osoz hartutako erabakien ondoriozko ekintza edo jardueren aurka ez da zentsura-moziorik aurkezterik izango. Hala ere, ekintza horiek burutzean arduragabe jokatu bada edo agintea oker erabili bada, errekurtsoa aurkezteko aukera izango da.

*71. artikulua.*– Elkargoko Batzarrak, aparteko bilera baterako deia egingo du mozioa aurkezten den egunetik aurrera hogeita hamar egun naturaleko epean, eta lehenengo batzar horretan, gai-zerrendako lehen gaia mozioa izango denez, aztertu egingo du, eta uste badu adierazitako betekizunak konplitzen dituela, aztertu eta eztabaidara aterako du.

Eztabaida honela hasiko da: mozioa izenpetu duten kideetatik batek zentsura-mozioa defendatuko du, denbora-mugarik gabe.

Gero, hemen ere denbora-mugarik gabe, zentsura egin zaion karguak hartuko du parte eta zentsuraren aurka egiteko egokitzat jotzen dituen ekintza eta arrazoiak adieraziko ditu, baldin eta uko egiten ez badio parte hartzeari.

Ondoren, batzarrean daudenen kideen artean isilpeko bozketa egingo da. Mozioak aurrera egiteko gehiengoaren botuak beharko dira.

Zentsura-mozioak aurrera eginez gero, zentsuratutako ekintza burutu duen elkargokideak utzi egingo ditu dagozkion egitekoak; gainera, dagozkion ekintza judizialak izango ditu.

*72. artikulua.*– Ekintza edo jarduera batengatik ezingo da beste zentsura-moziorik aurkeztu.

## LAUGARREN KAPITULUA
## ELKARGOKO EKINTZA ETA ERABAKIEN AURKAKO ERREKURTSOAK

*73. artikulua.*– Elkargoko gobernu-organoen ekintzak eta erabakiak Aseguru-Bitartekari Tituludunen Elkargoetako Kontseiluan errekurritu ahalko dira.

Kontseiluaren ebazpenak amaitu egingo du Elkargoko administrazio-bidea, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan zuzenean errekurritzeko bidea, jurisdikzio hori arautzen duen legearen arabera, baldin eta Administrazio Zuzenbideari loturik badaude.

*74. artikulua.*– Elkargoko organoen erabakien aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean erabakia hartzen denetik aurrera, jakinarazten denetik aurrera edo argitaratu zenetik aurrera, argitarapena jakinarazpenaren ostean egin bada. Zein organori aurkeztu zaion, organo horrek ebatzi beharko du, hiru hileko epean, errekurtsoa aurkeztu zen egunetik aurrera.

*Artículo 70.*– No se podrá dirigir moción de censura respecto a hechos o actuaciones que hayan sido consecuencia directa de acuerdos válidamente adoptados por los Organos de Gobierno del Colegio, salvo que se considere que ha existido negligencia o desviación de poder en el cumplimiento de estos acuerdos.

*Artículo 71.*– La Asamblea del Colegio, en reunión extraordinaria convocada en el plazo de treinta días naturales a partir de la fecha de presentación de la misma, en su primera reunión siguiente a dicha presentación, examinará, como primer punto del Orden del Día, el escrito de moción, y si considera que reúne los requisitos señalados, entrará en su examen y debate.

El debate se iniciará por la defensa de la moción de censura que, sin limitación de tiempo, efectúe uno de los firmantes de la misma.

A continuación, y también sin limitación de tiempo, intervendrá la persona que ostente el cargo objeto de censura, exponiendo todos los hechos o argumentos que considere procedentes para oponerse a la misma, salvo que renuncie a tal intervención.

Seguidamente la moción de censura será sometida a votación secreta de los miembros presentes, debiendo obtenerse para que prospere el voto de la mayoría.

Caso de prosperar la moción de censura, el colegiado que desempeñe el cargo cuya actuación se haya censurado, cesará en sus funciones, sin perjuicio de las acciones judiciales que procedan.

*Artículo 72.*– No se podrá reiterar una moción de censura sobre los mismos hechos o actuaciones.

## CAPÍTULO CUARTO
## RECURSOS CONTRA LOS ACTOS Y ACUERDOS DEL COLEGIO

*Artículo 73.*– Los actos y acuerdos de los Organos de Gobierno del Colegio serán recurribles ante el Consejo de Colegios Vascos de Mediadores de Seguros Titulados.

La resolución del Consejo, pondrá fin a la vía administrativo-colegial, quedando expedita la vía para que puedan ser directamente recurribles ante la jurisdicción contencioso-administrativa, con arreglo a la Ley reguladora de dicha jurisdicción y en cuanto estén sujetos al Derecho Administrativo.

*Artículo 74.*– El recurso de alzada que proceda contra los acuerdos de los órganos colegiales deberá interponerse en el plazo de un mes siguiente a la fecha de adopción, o a la de notificación o publicidad, si fuere posterior a aquélla, debiendo resolverse por el órgano a que vaya dirigido en el plazo de tres meses, contados desde su interposición.

Epe horretan ebatzi ezean, ezetsitzat joko da, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzietako bidea.

Aurreko xedapenek salbu uzten dute estatutu hauetan jasotako suposamenduak.

*75. artikulua.–* Edozein errekurtso aurkezteak ez du etengo errekurritutako ekintzen gauzatzea, non eta estatutu hauetako 58., 59. eta 63. artikuluetan agindutakoaren arabera agintzen ez den edota bide judizialetik hartzen ez den.

*76. artikulua.–* Elkargoko gobernu-organoetako erabakiak inpugnatzeko legitimaturik daude organo horietako kideak eta interes legitimoa duten elkargokideak.

